

# KarKara

32A

37. ZENBAKIA

ORIO ETA AIAKO ALDIZKARIA

1995eko UHTARRILA

*Elkarrizketa*

**Don Joakin Arostegi**

*Erreportajeak*

**Don Juan Zaragueta**


Izetà eta Landarbide aurrez-aurre

**Urte berri on!**

CONJUNTO RESIDENCIAL

# FERRIBERAK

ETXADIA  
O - R - I - O



INMOBILIARIA  
DE ORIÓN, S.A.

Herriko Plaza, 1  
Tel. 83 15 27

Lege-gordailua  
SS 346/90  
**ISSN**  
1132-1105  
**Tirada**  
1.200 ale

#### Erredakzio-taldea

Marisa Arruabarrena  
Manu Etxeberria  
Miren Etxeberria  
Ana G. de Txabarri  
Ana Iturain  
Iñaki Iturain  
Nere Manterola  
Idoia San Sebastian  
Jabier Zabaleta

Aiako Erredakzioa  
Eli Lasa  
Idoia Zarautz

Publizitate-arduradunak  
Miren Etxeberria  
Ana Iturain

Kolaboratzaileak  
Txomin Etxeberria  
Sendotza taldea

Azken orrialdeko  
marrazkia  
Luis Cisneros 'Vis'

Argazkiak  
Ana G. de Txabarri

Inprimategia  
Bizker (Usurbil)

- |    |   |
|----|---|
| 4  | <b>Gutunak</b>  |
| 5  | <b>Herrian galdezka</b><br><i>Zer dakar 95ak?</i>                       |
| 6  | <b>Herriko kontuak</b>  |
| 10 | <b>Kirolak</b>  |
| 13 | <b>Ekologia: Gabonak eta kontsumismoa</b>                               |
| 14 | <b>Iritzia</b><br><i>Gabonak. Sendotza Taldea</i>                       |
| 15 | <b>AIA</b>  |
|    | <b>Berriak</b>  |
|    | <b>Erreportajea: Izeta eta Landarbide<br/>aurrez-aurre</b>              |
| 19 | <b>Elkarrikzeta</b><br><i>Don Joakin Arostegi: bizitza bat</i>          |
| 22 | <b>Erreportajea</b><br><i>Don Juan Zaragueta. 20 urte hil zela</i>      |
| 24 | <b>Denetik pixka bat</b>  |
| 29 | <b>Kolaborazioa</b><br><i>Arrantzaleen oroigarri. Txomin Etxeberria</i> |
| 30 | <b>Azkena</b>   |

#### 1995eko publizitate-prezioak

Modulo bat .....	1.500 PTA
Bi modulo .....	3.000 PTA
Hiru modulo .....	4.500 PTA
Lau modulo .....	6.000 PTA
Sei modulo .....	9.000 PTA
Orrialde erdia .....	13.500 PTA
Orrialde osoa .....	27.000 PTA

Prezio hauetan zenbaki baterako balio dute. Urtean hamar zenbaki argitaratuko ditugunez, zenbaki guztietan beren publizitatea egin nahi dutenek % 10eko deskontua izango dute prezio hauen gainean.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Diputazioak  
diruz lagundutako aldizkaria

## GUTUNAK

# Egitetik egitera alde haundi samarra dagoenean...

Oriok daukan plaza berriaz ari naiz, Aritzaga plazaz. Urtetan taxien geltokia izan da eta debekuari kasurik ezin gabe, auto askoren aparkalekua. Orain autoei itxita dago, oinezkoentzat irabazi da. Oriok beste jolastoki bat dauka, beste topaleku bat, beste elkargune bat. Ongi etorri eta txalo bat dagokionari, nire ustez urte batzuk lehenago egin behar bazeen ere. Bainak, zoritzarrez, oraingoan ere badago "baina" bat; lanak irailean hasi zituzten eta, gerozrik, hiru hilabete luze joan zaizkigu zuloak, lokatsa eta zikinkeria artean. Gauza jakina da plaza bat edo beste edozer eraikitzeko ebitaezinak direla eragorpen guzti horiek, halere, nik uste dut ez zirela ehun egin behar egindakoa egiteko.

Kontua, halere, denborarena bakarrik balitz, gaitzerdi, Ordea, bestelakoak ere badira; lanak bukatutatz edo zituztenean oraindik agerian ziren tubo itsusi eta, behar bida, arriskutsuak, eta neronek esan behar izan nien haien ixteko eta txukun uzteko; zakar-ontzitzat jarri duten zerak gehiago ematen du haur txikien saskibaloit partidu baterako saskia, haurrek iristeko salto eginda ere nahiko lan izango dute eta. Bainak, hantz ere, plazak haurrak jolasean ibiltzeko balio badu, behintzat, hanka bete-betean sartu dute; izan ere harriak ez daude batere berdinduta, sekulako koskak daude, eta jolasean korrika dabilen edozein haurrentzat harri bakoitzaz estropozu egiteko trampatxoa bihurtzen da, eta, eroriz gero, min handia hartzeko modua. Beraz, ondo etorria plaza, beharrezkoak zelako eta polita gelditu delako (eserlekuak eta guzti) baina hurrengo obran saia gaitezen "baina" rik gabeko obra egiten denon onerako eta Aritzaga plazako "bainak" ea konponduta gelditzen diren lehenengo konponketa lanetan. Gaizki esanak barkatu.

ANA MARI AZPIROZ

## Orioko dendariak euskararen alde

Udalak eskatuta, SIADECOK kanpaina bat egin du urria-azaroan Orioko merkataritza-munduan euskararen erabilera indartzeko. Kanpaina Gipuzkoa eta Nafarroako beste sei herri edo eskualdetan ere egin da (Tolosa, Ibarra, Billabona, Zizurkil, Ordizia eta Malerreka).

Jeneralean hartuta, kanpainak emaitza ona izan du herri guztietan baina Orioko dendariak izan dira —denetan nabarmen— erantzun borobilena eman dutenak eta euskara erabiltzeko prestatasun gehien agertu dutenak. Datu aipagarrienak honako hauek dira:

► Orioko establezimendu komertzial ia guziek (%87a) hartu dute erabakiren bat euskara gehiago erabiltzeko.

► Establezimendu gehien-gehiengoa (%87a) kartelak, oharrak eta halakoak euskara jarri dituztela esan dute, horretarako Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntzaz baliatuz.

► 21 lagunek —dendajabe eta dendako langileak— izena eman dute euskara ikastaro labur bat egiteko.

► 22 establezimenduk guztiak euskara funtzionatzeko konpromezua hartu dute.

Bistan da, beraz, Orioko dendariekin ahalegina egin nahi dutela euskara gehiago erabiltzeko.

Udaleko Euskara Batzordeak pozik hartu ditu emaitza horiek eta animoak eman nahi dizkie herriko dendariei bide horretan aurrera egin dezaten, euskarak guzion elkarlana behar baitu.

UDALEKO EUSKARA BATZORDEA

## Arrautzik ez botatzekotan!

Orioko zinegotzi eta bereziki Alkate jaunari!

Txosnak direla medio, festa bezperan hara hemen tira-bira, A ze nolako saltsa,

Gazteek beren mugimenduak bultzatuan, herriko San Nikolas festak ongi pasatzekotan txosnak jartzeko ideia plazaratu zituen alkateari. Honek tabernariengana bidali zituen bueltan, baimesinadura eske.

Orduan tabernari gehienek sinatu egin zuten, baina egun batzuk pasa ondoren jakin zuten beraiek emandako sinadurak txosna batentzat baino gehiagorentzat zirela eta tabernariekin zerbaits susmatu zuten. Hau dela eta, tabernari guziek bilera bat antolatu zuten eta arteroko bi txosna onartuko zituztela soili esan zuten, honen agiri gisa beste txosnen aurkako sinadurak aurkeztu zituzten udaletxeen.

Festa atarian baietz-ezetz tabernari eta txosnazaleek enfrontarazi zituzten udaletxeen, baina erabaki berarekin geratu ziren.

Festa bezperan, gazteak txosna montatzen hasi ziren eta hasieran alkatea joan eta ezeskoa esanez txosnak kentzeko eskatu zien. Egun berean beranduago gazteen aurrean berriz ere alkate jauma azaldu zen baietzko emanez eta irrifartsu.

Zergatik ote iritzi aldaketa hori? Zeren beldur ote zen une horietan? Txantaiaren bat ote hor tartean? Zer ikusirik ba ote dute arrautzek kontu honetan?

HERRITAR BAT



# daddy

Estropalari kalea, 12 - Telf. 132816 - ORIO

BAKERO, NIKI,

KAMISETA, JERTSEAK...

# Zer dakar 95ak?

Oraingoan jendea igartzaile moduan jarri nahi izan dugu, 95ean zer pasako den asmatzen...

Kontxako banderarekin denak gogoratu dira, arrantzale eta barrarekin gehienak, batzuk futbolarekin eta bakarren bat loteriarekin...



**LEIRE ALUSTIZA**  
23 urte

Kontxa argi dago Oriok irabaziko duela, barrarekin hasiko dira eta ondo egingo dute oraingoan. Errealia Atletikaren aurretik sailkatuko da eta Udal hauteskundeetan linea berdinean jarraituko da.



**M. FRANTZISKA ARRUTI**  
48 urte

Herri mailan oso gauza garrantzitsuak eman litzeke 95ean, arrantza oso ona izango da, gainera, subastan dago barrarena, eta hasi egingo dira. Portuaren kontuarekin lanpostu gehiago sortuko dira.

**INAKI OLIDEN**  
41 urte



Arrantzaleek urte ona izango dute, Oriok Kontxako bandera irabaziko du eta barrarekin hasiko dira. Loteria handiena; Atletik Realaren aurretik geratuko da.

**ASIER EGIBAR**  
17 urte

Kontxa San Juanek irabaziko du datorren urtean, Liga berriz, Bartzelonak irabaziko du. KARKARA jende gehiagok irakurriko du eta loteria, loteria Rufinori tokatuko zaio.



**Bertan egindako  
opil eta ogiak**



**ORIOGI**

OPIL OKINDEGIA

Frontoi ondoan

Tfnoa: 83 01 89

**LIZASO**

**ERLOJU eta  
BITXI DENDA**

Kaia, 5

Tfnoa: 83 10 90



**LB GELATO**

Etxeko helatuak  
eta kruasanak

San Nikolas 17 TFNOA 131747

**URANGA  
BURDINDEGIA**

EUSKO GUDARI 7  
TFNOA 831236

## Motorrak dituztenentzako neurri berriak

Alkatetzak zebait neurri hartu ditu ziklomotore eta motozikletak dituztenentzat:

1.- Motorjabe guztiak silenziadoreak izan beharko dituzte tuboekapetan.

2.- Aurreko puntuak betetzen ez dutenei sanzioa jarriko zaie, zazpi laneguneko epean akatsa zuzen dezaten, bestela ibilgailua inmobilitatu egingo zaie.

3.- Ziklomotore bakoitzean gidaria baizik ez da ibiliko.

4.- Orion bizi diren pertsonen ziklomotore guztiak identifikazio-plaka ereman beharko dute. Matrikula gisako plaka hori jartzeko epea abenduaren bukaerarekin batera amaitzen da.

## 'Orio Kantari' musika-zinta salgai dago herriko hiru liburudendetan

'Euskaraz Gazte 94' programaren barruan kaleratu berri den 'Orio Kantari' ize-neko musika-zinta salgai dago herriko hiru liburudendetan.

Zintaren prezioa 600 PTakoia da eta zintarekin batera koadermillo bat banatzen da kanten partiturak eta musikarien argazkiak biltzen dituena.

Erregalia polita izan liteke egun hauetarako



## Gazteek festa-egun handia antolatu zuten abenduaren 4an

Aurtengo Euskaraz Gazte programaren barruan festa-egun handia antolatu zuten herriko gazteek abenduko lehen igandean, San Nikolasak hasi bezperan.

Festa-egunaren ardatza plazan egindako irrati-saioa izan zen. Irrati-saioa megaafonia bidez entzun ahal izan zen herrian, soinuaren kalitatea oso ona izan ez baten ere. Irrati-saioan jende askok hartu zuen parte eta denetik izan zen: elkartizketak, eztabaidak, musika, bertsoak, txistek...


Horretaz gain, aktibitate asko izan ziren herrian egun hartan: gaztetxoentzako jolas eta txokolate-janak, dantzariak, ttuniturroak, txaranga, herri-bazkaria eta abar.

Arazo tekniko batzuk izan baziren ere, gazteek oso lan ona egin zuten. Ikusten zen aurretik oso ondo prestatua zutela egin beharreko guztia. Euskaraz Gazte bätzordeko gazteek ederki frogatu dute gai direla horrelako antolaketa handiek eskatzen duten lana tajuz egiteko.

Aipatzeko da, bestalde, abenduaren 3an egin zela 'Orio Kantari' musika-zintaren aurkezpena herriko plazan eta, eguraldi ona lagun, jende asko izan zela entzule.

Udaleko Euskara Batzordeak adierazi digu eskerrak eman nahi dizkiela festa-egunaren antolaketan eta zintaren aurkezpen-ekitaldian parte hartu zuten guztiei.

**ERRUSTA**  
Kriston  
bokadillok!!



**KoastA**  
*Lasaitasuna eta giro ona*

## Mendi Federazioko karneta berriak egiteko aukera

Talai Mendi elkarteak 1995. urteko Mendi Federazioko karneta berriak egiteko aukera lizatu du, Izena eta dirua, urtarilaren 15a baino lehenago eman behar da Iturain liburudendan.

Aurten karneten truke ordaindu beharreko prezioak honako hauek dira:

### Estatala:

Helduentzat 5.875 pezeta, jubenilentzat 1.750 eta infantilentzat 1.335 pezeta.

### Europarra:

Helduentzat 9.625, jubenilentzat 5.500 eta infantilentzat 5.185 pezeta.

### Mundiala:

Helduentzat 17.875 pezeta, jubenilentzat 13.750 eta infantilentzat 13.435 pezeta.

Bestalde, goian aipatutakoaz gait, kontutan hartu behar da, federatzen zaren lehenengo urtea bada, izenarekin batera zure datu pertsonal guztiak ere eman behar dituzula.

Gainera, federatu ahal izateko eta Mendi Federakuntzak dioenez, beharrezko da Mendi Elkarte bateko bazkide izatea.



## Oso giro oneko San Nikolasak

Aurtengo San Nikolasetan azken urteotan bezala ekitalde ugari eta kaleak jendez beteta ikusi ahal izan ditugu, herriko jendeaz gain asko direlako kanpotik etortzen direnak. Dena den, festetan arrantzaleen bulla, umorea eta animazioa falta izan ziren, batez ere tabernetan, eta Orioko plaza ere ez da berdin San Nikolasetan moilan baporeak egon edo ez.

Bete aldetik, azken bi urte hauetan Xurrumurru Kultur taldeak antolatu izan du San Nikolas festetako Mozorro Eguna, baina aurten suspenditzea erabaki zuten. Taldearen iritziz, festa batzordearen gehiengoaren aurka, txupinazoaren ordua eta kontzertu baten eguna aldatu zuen festetaz arduratzet den zinegotziak. "Urte asko dira horrela daramatzagunak eta musika talde asko inposatu egiten ditu", gaineratzen zuen taldeak. Dena dela, herritar asko eta asko mozorrotu zen abenduaren 6an argazkian ikus daitekeen bezala.

## ZUMINTZA

- Illepaindegia - Estetika  
- Depilazioa - Sauna

Telfnoa: 83 17 56



## RAMIRO

Bataio  
Oroigarriak



## ALTXERRI

Jatetxea

Telefnoa: 83 07 62

## "Goenkale" Orion

Azken KARKARAn esaten genuen Maite Bastos ari dela lanean aktoresa moduan ETB ematen ari den euskal "Sugetzar" arrakastatsuan. Baino oriotarren ekarpena ez da horretara mugatzen, askoz handiagoa da. Maite ezezik Itxaspeko Iñaki Irastorza ere agertzen da "Goenkale"n. Eta gidoigileen artean Anjel Lertxundi "Andu" dago, eta ederki antzematen zaio bai telesaiotari. Batetik pertsonaiek dabilten hizkeran; lehengo batean honela zioen Txapasek: "Ostia pare bat eta putzua". Orioko esaldi petopetoa. Bestetik Goenkaleko pertsonai bat hil eta lur ematera Orioko kanposantura eforti ziren.

## Korta belodromoan patroi

Euskaldunon Egunkariak urtero egiten duen festan, aurren, J. Luis Korta jarri zuten patroi eta bere agindupean zenbait gaztek, sokatiraka, agertokia estaltzen zuen teloia altzatu zutenekitaldiari hasiera emanez.

## Italiako oriotarrek Gabonak zorionduz

Piamonteko Orio izeneko herriko haurrek postala bildi digute oriotar guztoi, jai zoriontsuak eta urte berri on opatzeko.



## Hiru baporetako arrantzaleak Azoreetan

Herriko hiru barku Azoreetan izan dira arrantzaz, Gure Cita, S. Luis eta S. Jose. Eguraldi txarra izan dute nagusi eta itsasoan baino egun gehiago egin behar izan dituzte lehorrean. Bi hilabetetan hogei bat aldiz atera dira itsasora. Bederatzi isla pasa zitzuten arrai bila, baina arrairik topatzen ez. Azkenean San Migel islan topatu omen zuten, eta han eman dute azken hilabetea.

Euskal Herritik hamabost bapore joan ziren, lau zatitan banatuta. Herriko hiru horiek eta beste bi getiarrek osatzen zuten talde bat, eta talde honek 200.000 kilo harrapatu ditu gutxi gora behera. Talde barruko harremana osa ona izan omen zen, baina beste taldekoekin ez dute ia erlaziorik izan.

Hango jendea ere, nahiko itxia, lehorra omen da. Islakoek manifestazio bat egin zuten hauek joan baino lehen, beste arrantzaleak hara joatearen aurka. Beraz, kontrako jarrera bilatu dute San Migelaren artean. Gazte jendeak somatu du hori besteek baino gehiago, neskek ez baitzieten kasu gehiegirik egiten, eta ezin ligatu...

Han ateratako argazkia duzue goiko hori, pareta guztia mota guztietako pintadez josita omen zegoen, eta noski, oriotarrok ezin gutxiago izan. Horrelako pintadak irla denetan aurki daitezke.



**ARDATZA**

Eusko Gudariak, 7      ☎ 83 10 88

**ITURAIN**

**okindegia**

Aritzaga Plaza ☎ 83 08 28

## J. Carlos Intxauspe esatari ETBn

Abenduaren 18an jokatu zen erremonte txapelketako finala zuzenear eman zuen ETB 1ek. Esatari lanetan Juan Carlos aritu zen Eguzkitzerekin batera. Ez dugu esango erremontean egiten zuen bezain dotore egin zuenik, hori oso zaila da eta, baina Zarautzen bizi den oriotarrak bere euskera ederra eta erremonteaz duen jukinduria osoa crakutsi zuen. Ez zuen lehenengo aldia zeregin horietan eta ez ahal da izango azkena ere!

## X. Sukia bertsolaria gazteen finalean

Abenduaren 8an Ertendierian bertsolari gazteentzako Xapelar sariaren finala izan zen. Finalisten artean oriotar bat: Xabier Sukia, Epaimaiaren erabakiz Ainhoa Agirrebaldegi berigarraari jarri zioten txapela, eta honek erabakiarekin ados ez zegoelako edo, txapela burutik kendu eta bosgarren geratu zen Xabier Sukiari jarri zion. Xabierrek ez zion onartu, eta gauza horretan gelditu zen.



## Libe Iribar Euskadiko eskusoinuko irabazlea

Libe Iribar Azkue oriotarrak lehen saria eskuratu du Durangon egin den Euskadiko Eskusoinuko 4. Lehiaketan. Saria senior mailako kategorian lortu du eta 35.000 pezeta, kopa eta urrezko domina jaso zituen.

Libek beste sari batzuk ere irabazi izan ditu, adibidez, iaz Torrelavegako lehiaketan eta 1992an Gipuzkoako jaialdian urrezko domina eskuratu zituen.

Orioko Musika Eskolako eskusoinu-orkestrak, bestalde, Arrixu Ulaizaren zuzendaritzapean, lehen saria irabazi zuen abenduaren hasieran Torrelavegan egindako lehiaketan.

## Gabon kantu, jantzi eta jaiotzen irabazleak

Lau taldek hartu zuten parte Talai-Mendi Elkarteak antolatutako lehiaketan. Irabazleak Manex, Joseba, Ainalara, Ixiar eta Lander izan ziren. Bigarrenak eta hirugarrenak puntu berak lortu zituzten, beraz enpaten geratu ziren. Saritakoek Talai-Mendik antolatuko dituen irteera guztia doan izango dituzte, eta gainera lehenda-bizikoeak 10.000 pta. irabazi zituzten, bigarrenek 6.000 eta hirugarrenek 3.000.

HERRIKO KONTUAK

## Oriogik eskaparate lehiaketa irabazi du

Oriogi okindegia lehen saria irabazi du Gipuzkoako Belenzaleen Elkarteak eta Merkatu Ganbarak urtero antolatzen duten probintzia mailako eskaparate-Ichiaketa. Jon Ander Belokik egin du eskaparatea eta bertan, ogi-opilak erabiliz erreño batzen irudia osatu du oso eskaparate orijinala lortuz.

Lehiaketa berean Patxi Larrañaga eta Ana Rosa Iparragirre oriotarrak Lasarten duten harategiak bigarren saria lortu zuen.

**AXUN**

**JANARIAK**

Telefonoa: 83 59 02

**iTZiAR**

**Kirolak**

83 31 03

**IPARRAGIRRE**

**AUTOZERBITZUA**

Oa kalea, 5 Tfnoa: 83 17 15

**Iñaki Garate**

Aseguru-agentea

Aita Lertxundi 15, 2. ezk. Orio Telefonoa: 83 11 49

**C C L**

CARASA, CILVETI, LACORT Y CIA, S.A.

**Aseguruak**

**GDITZ**

Oinetakoak 830089

## Pilota: Miera eta Etxeberria, ondo

Emaitza onak eskuratu ditu Miera eta Etxeberria bikote oriotarrak pala motzeko Gipuzkoako Txapelketan. Abenduaren 16, 17 eta 18an jokatutako finaletarako ozta-ozta ez ziren sailkatu, finalerdieta kanporatu egin baitzitzuten. Erremonte modalitatean hiru bikote izan genituen ordezkari. Juan Mari Itsaso pilota-ardunudunaren hitzetan, "gazteak dira, jubenilak izan eta seniorrek ari dira jokatzen. Bi Euskadi Txapelketarako klasifikatu dira, Gipuzkoaren izenean". Nesak ere baditu Juan Marik taldean, lamean txukun jardunet: Maite Redondo eta Koro Barrutia.

## Imanolek luzatu egin du kontratua Errealarekin

Imanolek beste bi denboralditarako luzatu du Errealarekin duen kontratua, 1998ko ekainera arte. Imanolek, Sansen bi denboraldi egin ondoren, 1991ko urrian fitxatu zuen Errealarekin eta gaur egun duen jokalaririk garrantzi-tsuenetako da.



Jaz ateratako argazkia

## Orioko F.T.-ren jubenilak igoeraren bidean

Ondo dabilta Orioko Futbol Taldearen hiru ekipoa. Hala ere, badago egin beharreko aipamen berezirik. Jubenil mailakoak orain artean oso denboraldi itxurosoa ari dira egiten, eta sailkapeneko bigarren postuan daude. Ematen duenez, aparteko problemarik ez bada sortzen, igoera lortzeko aukera haundia dute, ohorezko mailara, hain zuzen ere.

Errejonaleko taldea ere ondo ari da. Sailkapenaren erdi-erdian daude, eta horretan jarraitzea dute helburu. Kadeteek, berriz, taldea berritzen dute lanik handiena. Jende berria hasi zaie gaztetxoen maila honetan, eta hori izango dute aurten arerio nagusia.

**PATXI**  
HOTEL & RESTAURANTE

Telefona: 83 18 37

**Mm**  
ORRAZKERAK

TFNOA. 83 12 61

**URAITZ**  
LURRINDEGIA

KIROMASAIA ESTHETICIEN

ENDAIA 3 TFNOA. 83 18 97

**BORDATXO**

Taberna

TFNOA. 83 18 97

**Antilla**  
**Jatetxea**

Eguneko menua, karta,  
pintxoak...

Tfnoa: 83 07 50

.....

**TABERNA**

ARITZAGA KALEA

## Traineru estropada jokatuko dute Donibanek eta Oriok

Asteasuko bizilagun batzen gaixotasun larri eta luzea sendatzeko irtenbide bakaarra Estatu Batuetan operatzea denez, eta honek diru kopuru handia eskatzen dueenez, Asteasuko Udala beste hainbat ekitaldiren artean traineru estropada bat antolatu nahian dabil. Estropada honetan Oriok eta Donibanek parte hartuko dute.

Donibane eta Orioko traineruek hastea dihoan denboraldiaren norgehiagokarik goiziarrena jokatuko dute. Oraindik aprobarren eguna ez bada finkatu ere, dirudinez ez dago aurrez bi taldeen aldetik inongo eragozpenik.

Dena dela, gorabehera non jokatzea dela dirudi; sanguandarrek Pasaien izatea nahi dute, eta oriotarrek, noski, gure herrian joka dadila nahi dute.

Badirudi, datorren 1995a ailegatu eta hasi ere egingo zaigu, estropada jokatzerako, baina, saso honetan horrelakoak ikustea arraunzaleontzat pozgarri izango zaigu, dudarik gabe.



KIROLAK

## Juan Anjel Alguacil bigarren Orioko krosean

Juan Anjel Alguacil oriotarra bigarren sartu zen abenduaren 18an Orion jokatu zen krosean, Juan Mari Garin atleta beteranoaren atzetik, 11 segundura. Dena den, Gipuzkoako onenak ez ziren izan kros-denboraldiaren bigarren proba zen horretan. Besteak beste, aurreko urtean izandako Diego Garcia, ez zen Orioko zirkuituan aritu. Falta zen beste bat Kamel oriotarra izan zen. Orioko atletismo Itsaso taldearen buru direnekin bere fitxaren diru-kopurua negoziatzen ari da, eta, oraindik adostasuna lortu ez duenez, Orioko lasterketan parte ez hartzea crabaki zuen.

**LIZASO**

**ALTZARIAK**

Eusko Gudari, 46 ☎ 83 07 84  
Aita Lertxundi, 6 ☎ 13 33 01

**KAIA  
JOLASAK**

\*\*\*\*\*

**SARASUA ERRETEGIA**

**Berezitasunak:** — Arrain zopa

— Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29

Telfonak: 83 00 05  
13 25 32

*Chitchat club*

*Are you tired of grammar,  
formal lessons and teachers?*

*We've got the solution. Come and  
join us for debates and informal  
discussions in a relaxed atmosphere  
in the company of University qualifi-  
ed people including a native gradu-  
ated at Manchester University.*

*For further information contact  
«Academia Ikas-Learn» Ibai-  
Ondo, 8-O'RIO Tel: 83 12 95*

Mila Zubizarreta:

# “Oriok kirolddegia behar du”

*Bizitzaren erdia  
baino gehiago  
saskibaloien  
inguruau, eta  
oraindik ere kirol  
hau uzteko inongo  
asmorik ez du. Mila  
gaurko emakume  
kirolarien belaunaldi  
berriaren adibide  
argia dugu. Hogeita  
bi urte, eta  
kirolarekin gozatzen  
eta bizitzen ohitua.  
Orion eta Donostian  
pasa ditu bere  
saskibaloitza. Han-hemenka  
izandako  
esperientziei buruz  
hitz egin dugu.*

**Zenbat denbora darama  
zu saskibaloian?**

**Mila Zubizarreta:** Zortzi edo bederatzi urte ntuela  
hasi nintzen, eskolan, bigarren  
edo hirugarren mailan.  
Eta gaur arte.

**Ze mailan ari zarete joka-  
tzen orain?**

**M.Z.:** Errejional mailan  
ari gara auren.

**Mailaz igotzeko aukerarik  
bai?**

**M.Z.:** Auren ez. Talde  
berria egin dugu. Iazko as-



kok utzi egin dute, eta aurten  
berez jubenilak direnak gu-  
rekin senior mailan hasi dira  
jokatzen. Badira aurten ju-  
benil mailako lehenengo ur-  
tekoak direnak. Dena dela,  
denboraldihonetan orain arte  
jokatu ditugun hamar parti-  
duetatik erdiak irabazi ditu-  
gu.

**Ze garaipen sonatu esku-  
ratu dituzu saskibaloian?**

**M.Z.:** Gazte mailetan, jo-  
katu nuen maila guztietan  
Gipuzkoako txapelduna izan  
nintzen. Bi urtetan Euska-  
diko bigarren geratu ginen,  
kadetetan. Ikastera Donos-  
tiara joaten nintzela, jubeni-  
letan, izan nuen urterik one-  
na. Gipuzkoa eta Euskadiko

txapeldunak atera ginen, eta  
gero Estatu-txapelketarako  
sailkatzeko sektore-lehiaketa  
ere irabazi egin genuen.  
Errioxa, Kantabria eta Nafar-  
roa gaindituz. Gero, senio-  
rretan. Donostia taldean bi  
urtetan jokatu nuen; bigarren  
maila estatalean ginen, bai-  
na oso gogorra egiten zitzai-  
dan, bidaia direla, etxetik  
kanpora lo egin beharra, eta-  
bar.

**Noiz arte pentsatzen duzu  
saskibaloian jokatzea?**

**M.Z.:** Egia esan, duela  
hiru urtea pentsatu nuen.  
Orion seniorretan talderik ez  
zezoen, eta Donostiako asun-  
tua, lehen aipatu dudan be-  
zala, ez nuen gustokoa.

Oraingo taldea Orion sor-  
tzean, ordea, etxearen segitza  
erabaki nuen.

**Nolako problemak edo  
zaitasunak ditu emakume  
batek kirola egiteko?**

**M.Z.:** Herri mailan, ba  
uste dut aukera gehiegirik ez  
dagoela emakumeontzat ki-  
rola egiteko. Orain dela gu-  
txi arte Orion saskibaloia zen  
emakumeek praktikatzen  
zuten kirol bakarra. Egia da  
normalean neskek lehenago  
uzten dutela, edo, hobea esan-  
da, lehen horrela gertatzen  
zela. Nere kasuan, esate bat-  
erako, saskibaloia izugari  
gustatzen zait, eta ez dut pro-  
blemarik izan.

**Neskak izateagatik lagun-  
tza gutxiago al duzue?**

**M.Z.:** Ez alde horretatik  
ez dugu eragozpenik. Zera  
gertatzen da, ordea, lehengo  
urtean bertan sortutako mu-  
tilen taldeak guk baino parti-  
du gehiago dituela, nahiz eta  
hau beren bigarren denbo-  
raldia besterik ez izan.

**Ze falta zaio Orioko saski-  
baloiarri?**

**M.Z.:** Beno, ba, hasteko  
polikirodegia. Lehengo ur-  
tean, adibidez, frontoian arazoak  
izan genituen, hura pilotarako  
zela etabar. Beraz, Zarautz eta  
Zarautz trenatzen garu;  
baina, hura urreti dago, eta  
neguan eta ilunpetan hura  
joxtea benetan beldurgarri  
egiten zaigu denoi.



Gure  
herriko  
garagardoa

ORIO  
Auto Eskola  
Telefona: 83 57 19

# Gabonak eta kontsumismoa

San Nikolasetako alean, txoko honetan, zarratz eta burrundaz aritu ginen eta horiek sor ditzaketen arazoez ere bai. Orioko Udalak bi astetara bando bat kaleratu zuen (seigarren orrialdean ematen dugu horren berri), tubo eska perik gabe dabiltsan motoen kontra hartuko diten neurri eta zigorrerek. Bi kontu hauek, beren artean, lotura dutela pentsatzea, alegia artikuluak eragin zuela Udalaren bandoa pentsatzea gehiegizkoa litza-teke. Baino koinzidentziak ikaragarri poztu gaitu.

Eguzki talde ekologistak abenduan izan dituen jardunaldietan Juan Mari Urbietak parte hartu du arrantzaleek sare pelajikoen kontrako borrokan dituzten arazoez hitz egiteko. Juan Mari oso hitz politik esan zituen han: "Arrantzalea eta itsasoaren arteko harremana, baserritarra eta luraren arteko bezelakoxea da, gizaldi-



gizaldi lanbidea gurasoen-gandik seme-alabengana pasatzen da eta, beraz, errespetu handia zaio itsasoari eta arrantzaleak kontzientzi osoa du itsasoa bizirik utzi behar dela ondorengotzat".

Hitz horiek politik iza-teaz gain pentsarazten dutenak ere badira, batez ere urteroko gabonetako gara super-kontsumistan murgilduta gauden momentu

honetan.

Eta ekologiaren espiritu eta mezu honekin bat datozen gomendio batzuk KARKAR Aratuko ditugu Gabonak eta datozen urte berri guztiak ekologikoa go eta osasungarriagoak izan daitezen:

— Gehiegikeria guztiak txarrak dira, jan-edanetan batez ere, eta ezertarako balio ez duten gauzakerosten egiten direnak ere bai.

— Etxeetan apaingarri jartzen diren zuhaitzak aldatu egin behar dira mendian.

— Zakarrak bereiztu egin behar dira. Orion baditugu paperak, kristalak eta gainontzeko zakarrak bereizteko ontziak. Erabili guztiak.

— Jostailuak heziketarako baliabide dira. Balio dezatela, bakerako, sexuen arteko berdintasunerako, haurren irudimen eta sormen lantzeko eta beste haurrekiko harremanak estutzeako.

— Jostailu horiek Omentzerok ekartzen baditu haurrek denbora gehiago dute jolasteko oporetan Erregeek ekarrita baino; era horretan, gainera, euskal mitologiako pertsonai batek kanpoko mitologiako batzuk ordezkatzen ditu.

— Postaletan ohizko topoekatik ihesi eta zerbaite pertsonala idatzi. Pentsaze triste den urte berri on besterik esaten ez duen postala jasotzea.

**OLIDEN  
HARATEGIA**

EUSKO GUDARI, 2  
TFNOA 83 10 86

**T A L A I      AHOLKULARIAK, S.L**

AHOLKULARITZA: ✓ Fiskala, laborala, juridikoa eta kontablea  
ERRENTAK

INFORMAZIOA: ✓ Eusko Jaurlaritzak subenzionatutako etxebizitzak erosteari buruzkoa (finantziaziorako erraztasunak emanez)  
✓ Finanziazio-moduei buruzkoa      ☎ 13 37 20

# Gabonak

Gabonak deitutako egun batzuk dator. Hitz hau entzuten dugunean, galdera bat datorkigu burura: baina, zer dira Gabonak? Gogoratzen al da norbait zergatik izaten ditugun urte bukaeran bi aste jai?

Gaur egun jendeak oso era ezberdinan ospatzen ditu Gabonak. Batzuentzat, Gabonak betidanik erakutsi diguten kristautasunaren oroinmena da. Beste batzuentzat, oporrak dira soilik. Badaude ordea beste batzuk, gaur egun oso gutxi direnak, Gabonetan zenbait balore lantzen dituztenak: laguntasuna, bakea, maitasuna, elkartasuna...

Duela urte batzuk, ez gehiegi, Gabonak beste era batera ospatzen ziren. Garai horretan, Gabonetan, desiratzen zena familia guztia elkartuta eta pozik ikustea zen, zuten gutxirekin konformatuz. Gabon Gauean, azaolioa eta bakailaua jaten zuten. Gaueko hamabietan Gabon kantak abesten zituzten mahaiaren inguruan eserita. Jesus haurraren etorrera ospatzen zuten.

Gaur egun, berriz, badirudi Gabonak "Corte Inglés"ak asmatutako egun batzuk direla, non garrantzitsuena opariak egitea baita, eta zenbat eta garetiagoak hobe. Askotan ez da begiratu ere egiten beharrezkoa duzu edo ez opari hori. Opari hauen bidez besteei erakusten diezu zuk beste batek baino opari hobeak dituzula.

Beste alde batetik, Gabon afaria



**D. ANDRES**

SENDOTZA TALDEKO  
ORDEZKARIA

dago: aspaldiko azaolioek gaur egun angulei egin diente lekua. Dirua botatzeko egunak dira, urte osoan jaten edo edaten ez ditugun gauzak (garesiatik direlako) Gabonetan erosten ditugu. Hau zergatik ematen den inork ez daki.

Bada gogoeta txiki bat egiteko garaia: esandakoa eta gero, saia zaitez ondorengo galderai erantzunak bilatzen:

– Zergatik jaten dugu gichiago (batzuetan gehiegi) eta hobeto Gabonetan?

– Zergatik egin behar dira opariak?

– Zergatik egiten ditugu inuxente-

keriak inuxenteen egunean?

– Zer zentzu dute urte bukaerako festek?

Pentsatzen jarri, denbora pasa eta oraindik ez badiezu crantzunik bilatu galdera hauei, zoaz berriro atzerantz eta pentsatu, ez al duen pena merezi benetako Gabonen oinarria aurrera eramatea. Hau da, Gabonak suposatzen dituen baloreak landu (guztiak anaiak bezala ikusi). Baina ez bakanrik egun hauetan, baizik eta urteko egun guztietan.

Gabonak urte bukaeran izaten direnez gogoeta garaia izan beharko luke; urtean zeharegin dugunari buruz gogoeta egin; eta zer egin dugun gaizki eta zer ondo ikusi ondoren, hurrengo urtean hobeak izango garen esperantza izan, eta hau lortzen saiatu.

Guretzak Gabonak ez dira egun batzuk, guretzat jarrera bat da. Gaur egungo bizitzari aurre egiteko era bat, arazoei erantzuteko beste alternatiba bat. Jarrera hau maitasunean oinarrizten da, berdintasunean, elkartasunean... Hitz gutxitan esanda, gizarte humanoago bat lortzea, non garrantzitsuena gizakia, pertsona bat bezala konsideratua eta ez zenbaki bat bezala baita.

Gure hitz hauek zerbaitetarako balio izango dutela espero dugu, Ida-tzi honek pentsarazi egin baldin badi zu, horrekin bakanrik gu gustora sensituko gara. Besterik gabe Gabon zoriontsuak eta urte berri on opa dizuegu.

HARAGIA GUSTORA JAN NAHI  
BADUZU EROS EZAZU...

**Kepa Loidi**  
harategia urdaitegian

Pelotari, 1 Tfnoa 83 25 65

**AURRERA**

disko-taberna

ORIO

Autoak aukera

onean

**AIA ORIO**

Telefona: 13 04 38

## Erregeen kabalgata eta jaiotza bividuna

Urtarrilaren bosteko ilunabarrean Melchor, Gaspar eta Baltasar etorriko dira beti bezala ondo portatu direnei opariak uzteria. Artzaiek gi-datuko dituzte bere krisiello eta lastaizkoezin herriko plazaino. Ondoren, beheko elizaraino joango dira bertan egongo den Jaiotza bividuna, Haurtxo Jaungoikoari beren oparien eskaintza egitera.

Errege egunean berriz, eskaintzaren errepresentazioa berrituko dute Meza Nagusian, eta gero beraick izango dira Jesus haurtxoan herritarren gana hurbilduko dutenak muin emateko.

## Elikadurari buruzko hitzaldia

Abenduaren 14an Javier Vilches herriko erizainak eta Miguel López de Ardinak egunero jaten duguna aztertu zuten Kultur-Etxean



## Udarregi bertsolariaren mendeurrena

Udarregiren heriotzaren mendeurrena 1995eko urriaren 2an izango da, hori dela eta, zenbait ekintza izango dira Aiako Uztacta-Buru baserrian jaiotza eta Usurbilen bizi izan zen bertsolari honen inguruan. Ekintza nagusienetako bat Usurbil eta Aia udalerrien arteko senidetzea izango da, datorren urtarrilaren 15ean. Egun horretarako, senidetze dokumentua eramanez, Aiati Usurbilera oinez joateko asmoa dago, gero eguerdian Usurbilen sinatzeko.

## Ipuinaren ordua liburutegian

Urtarrilaren 16an eta zenbait liburutegien artean antolatutako ipuin kontalarien zirkuitoaren barnean, IKA taldeko kontalaria izango dugu Aiako liburutegian, haurrek hain gustokoa duten saioa eginez.

Aipatzeko da abenduan Jose Mari Karrereren txanda izan zela, eta laguntzaile gisa Mikel Marquez abeslaria izan zuela, Goi zikloko ikasleentzat saio polita prestatu zuten bien artean, musika eta istorioak tartekatuz.

## Aiarrak irabazle Gipuzkoako pelota txapelketan

Kluben arteko Gipuzkoako txapelketa jokatu berria da Euskal ligako lehen fasearen barruan. Emakumezkoen kategorian Lasai ahizpak Aiako Kirol Elkartea izenezan 30-19 nagusitu ziren Altzatarra klubaren aurka.



Zumar-Alde etxea  
Tfnoa: 83 39 91



*Antton Sarobe*

Kamioi zerbitzua,  
ganadu eta abarretarako



Tfnoa: 83 48 59

**ARISTERRAZU**

Jatetxea  
San Pedro

83 45 21

**ALUSTIZA AUTOBUSAK**

16, 36 eta 56 plazakoak  
Bidaia eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko

13 28 93 / 83 08 80 mugikorra: 908-77 19 27

## Izeta eta Landarbide aurrez-aurre

*Azpeitiko zezen plaza askoren bilgune izan genuen abenduaren 4an. Bertako protagonista nagusiak bi aiar eta 125 kiloko harri kubikoa izan genituen. Tartean ez zen apustu makala, zeinek jasoaldi gehiago eman hamar minutuko hiru txandatan. Apustu horren nondik norakoak gertutik jakin nahian, Agustin Arruti, "Landarbide", eta Jose Ramon Iruretagoiena, "Izeta" rengana jo dugu.*

### IDOIA ZARAUTZ

Apirla aldera bi harri-sotzaile hauen arteko desafioa herriaren jakinean egon zenetik esames ugari izan da Aia inguruau. Apustua ze baldintzetan jokatu; ze harri, bentaja utzi edo ez... erabakitzea ez ornenda erraza izan. Azkenean ordea, akordio baten medio, abenduaren 4a upursturako eguna izatea era-baki zen. Jokoan hiru milioi, eta erabili beharreko harria 125 kiloko kubikoa, hamar minutuko hiru txandatan. Sarrera txartela berriz, 3.000 pezetan finkatu zen.

### Prestaketa lanak

Abendua urrutti bazegoen ere, erabakia hartua zegoen,

eta ondorioz lehen bait lehen lanean hasi beharra. Zazpi hilabete izan dituzte entrenamendu lanetarako, eta beren indarrak ondo prestatzeko.

Paskual Sororen agindutara egon da Landarbide, eta berak adierazi digunez, ekaina aldera ekin zien prestaketa lanei. "Astean bitan gimnasioan pesak egin ditut, beste bi egunetan mendia eta gaionontzeko bietan harri-rekin ibili naiz. Igandean berriz, jai". Azkenengo bi hilabeteak benetan gogorrakizan direla esan digu Agustin Arrutik. "Azkenengo bi hilabeteak Bedaion eman ditut, entrenamendu serioago bat jarraituz".

Izeta berriz, Goenatxoren esanetara egon da. Astean bi aldiz harriarekin ibili da presztatzen eta beste bi egunetan Landarbideren antzerapesk



*Izeta Azpeitiko plazan apustu egunean*

egiten. "Irailean hasi eta abendurarte, entrenamenduak serioago hartu ditut. Aurretik ere harri honekin ibiltzen eta entrenatzten nintzen, baina hilabete hauek izan dira benetan erabakiorrenak".

### Diru hotsak

Horrelako apustu baten aurrean, diru asko jokatzen da. Dirua tartean izaten delako edo, bi aldeen arteko

jarraitzaileen artean tira-bira eta zeresan ugari sortzen da. Oraingo honetan ere, antzeman da horrelakorik.

Guztira zenbat diru jokatu den ez badakigu ere, jakin badakigu diru mugimendu handia izan dela tartean. Plazan bertan ere, diru hotsa nagusi izan zen. Plazan ezezik Aian bertan ere dirua nabarmenki mugitu da.

Silbestre Arruti, Jauregi tabernako nagusiak adierazi zigunez, apustua egin baino hamabost egun lehenago antzemun da gehien bat jen-

## TXUKUN

Lorazantza

• Basoetako esplotazioa eta loralana

Tfnoak: 13 07 69/908-17 93 16

ERRETEGIA



SACARDOTEGIA

Tfnoa: 13 16 93

Urdaneta bidea-Aia

# EUSKARAZ GAZTE

## II. Literatur Lehiaketa

### 1994

---

# GEHIGARRI

# BEREZIA

---

#### Saritutako lanak

##### Ipuinak

1. Saria: Psikopata. *Jokin Salamendi*
2. Saria: Hutsik
3. Saria: Amonatxoa. *Nerea Orbañanu*
4. Saria: Mundu berria. *Alazne Goenaga*

##### Olerkiak

1. Saria: Esgintza. *Xabier Sukia*
2. Saria: Ametsetan. *Urku Esnaola*
3. Saria: Bi hondar ale gara. *Imanol Alkorta*
4. Saria: Hutsik

# *Psikopata*

## *Jokin Salsamendi*

Behelainoak Orioko herria biltzen du. Laino artean gizon heldu baten irudia ikus daiteke. Azkar doa. Enparantza zeharkatu eta portuan dagoen Opel Kadett zuri baten parean geratu da. Giltza ateria eta atea zabaldu du.

*"Hau duk botza hau eta ze tripako mina. Jakin Coca Colak saheloan kalte egiten didala eta balat ere edan egin bebar. Hemendik aurerra ginebarri Kas naranja batako zioat. Zortziak eta sei. Orain ere ez nank Santurtzira bederatzietarako iritsiko".*

Giltza autoan sarru, arrankatu eta kaia kalean gora doa. Ezkerrera bira, hogei metro zuzen eta herritik irteko presa.

*"Txukundu beharko diat kotxeak ere. Hondarra, lokatza, pipa azalak, harri-txintzarrak... denetik. Hor atzean ere mantak, beste etxeko telebista zabarra, erreminta-kaja... ganbara zirudik! Izen ere, denborarik ez!"*

Beste autoek pasara utzi orduko herritik irten eta Zarautz aldera jo du. Baino gidariak autoestopista ikusi duenean, balazta zapaldo eta bide bazterean gelditu du kotxe zuria. Ezpaineran duen Winston erdi etrea behatzetan hartu, eskuineko lehiarila jeisten duen boton sakatu eta autorantz datorren autoestopistaren zain geratu da. Bere begirada zorrotzez aurki bidaiari berria izango duen gaztea aztertzeari ekin dio.

*"Ez dik 'pinta' txarrik. Ez niake urain arazorik nabi. Bibotz ondoa nank baina... to! gero drogazale bat tokatu eta ze? Agian urezko bortza ere kenduko lidake. Baztorrek eta galdeku beharko zioat nora kristo doan".*

—Epa! Nora zoaz?

—Bilbora. Eraman al nazakezu? —galdeku zion autoestopistak ahots leun batez.

—Sartu. Ni Santurtzira noa.

Gazteak instant batean area zabaldu, eseri eta bete larruzko poltsa magalean utzi ondoren gerriko lotu du. Hogeiren bat urte ditu. Ume aurpegia izan arren ile gutxitun bizar estu batek estaltzen dio aurpegiaren beheko aldea. Begi urdinak ditu eta buruan ile hori

nahastua. Igarri da egun dexente daramatzala garbitu gabe eta kotxeko berotasun eranskorrik gaztrearen izerdi kiratsa hedatzen laguntzen du. Belarritako biribil distiratsua du ezker belarritik zintzilik eta eguzkiaren izpiekin topatzean argitu egiten zaio belarria. Bere gorpuzkeria tristeza soinean duen nikia alaiak potzen du. Oso nikia ederra da. Urdin-urdina. Bad Religion talde ame-rikarra ageri da bere biriken parean eta taldearen izena, letra zuriz idatzia, zilbortaren gainean. Aparteko nikia da. Duen baliozko jabetza bakarra, ze ez darama ez lepokorik, ez ordularirik eta ez ezer.

*"Galdeku beharko zioat nor den edo nora doan edo zertan dabilen edo... eguraldiaz, ze nik ez haziñat gata jartzetan bonek ez dik txintik ere esango".*

—Ze, eskolara?

—Ez.

*"Ederki. Ez... eta kitto. Han Patxi Alonso baino beiritsua- goa duk. Ba ez badik bitz egin nabi nik ez diat txintik aterako".*

—Oporretara noa —esan zuen ezezagunak handik bospasei minututara.

—Soriara joan nahi dut autoestop eginez.

*"Ez duk kiebra joko!"*

—Joño! Soriara, e! Abentura gustokoa duzu orduan.

—Bai. Ez dakit noraino iritsiko naizen baina nire asmoa hori da. Soriara joan eta han okupa moduan bizi herriska batean.

—Eta etxelean ha al dakite?

—Bai. Eta ongi iruditzen zaie.

*"Nik ere ongi ikusiko niake hire aita banintz. Begi bistatik saltzeagatik edozer! Baino bi nire semea babintz beste upeloko sagardoa izango buke. Txima horiek moztu, belarritakoa kolpetik atera eta zortzi ordu edukiko niake —ze zortzi, kamabi! — mendian lanean. Ez buke horrelako txorri haize-rik izango. Ez baitz ba zaraustarra izango?"*

—Nongoa zara?

—Ni Andoingoa.

*"Beno. Dexente... bazegok mutil hau konpontzea. Hala ere, honen etxearen makina sufritu beharko dute bonekin. Ez esko-larik, ez ofiziorik, ez ezer. Hau atarramendua bau! Nora goazak gaur egungo gazte jende bonekin! Parranda eta zurruterako hai aurrenak, baina lanerako kontuan..."*

—Ni, berriz, Orioakoa naiz. Ezagutzen aldu Orio?

—Bai. San Nikolasetan egon nintzen. Festa onak dituzue.

*"Harrizketa izango buen bada. Oriora bebin etorriko eta zertara? Festara, Jesus, zenbat festazale dabilen libre. Gure garaiak pasa balitztze hauek. Egunean hamasei ordu sartuz lanean jostake. Baina alferrik duk. Hauekin ez zegok ezer egiterik. Irratia piztuko diak, ze alproja bonek ez zenkak hitz egiteko gogorik."*

Gidariak irratia piztu du eta zigarroari azken nikotina kea lapurtu ondoren, lehiatilatik errepidera jaurtiki du. Automobilaren barruko tenperatura txit altua da eta bi bidailagunen masaitik behera izerdi tanta darie. Giroa arraroa da eta irratia soilik hausten du isiltasun hori.

—Ba bai. Azterketa eta ikerkuntza sakon baten ondoren, lortu dugu 1994. urte honetan kontratu finkoa egin dioten langile bakarra aurkitzea. Sei urte igaro ondoren epe laburreko kontratu bidez lanean, azkenean lortu du enpresak mugagabeko eta behin-betiko kontratu sinatzea. Baina eskatu digu arren bere izena ez emateko aditzera, ze bahiketa edo txantaien beldur da. Hala ere, bere oroi menez Kaxianoren 'Zotionak' kanta jarriko dugu (...) Barkaiguzue abestia eteteagatik. Oraintxe iritsi zaigun albiste baten berri eman beharra daukat. Urnietako eroetxetik dator kigu notizia. Zarauzko komisaldegiko ertzainen buruak esan digunez, gaur gauean psikopata arriskursu batek ihes egin du Urnietako San Praxku eroetxetik. Itxuraz zaintzailea erahil zuen eta txirrinda zuri batean egin zuen ihes Zarautz aldera. Baina berria zehaztearen hor daukagu telefonoaren bestaldean De Andres medikua. Kaixo doktore.

—Kaixo.

—Horren arriskutsua al da?

—Bai, bai. Nire gaixo hau psikopata arriskursua da. Bere gurasoak gabon gau batean erahil zituen eta eguberrieta jan egin zituen. Pentsa ze arriskursua den! Badirudi ez duela odolik, ze ez da haserretzen. Baina hotz-hotzean sekulako sarraskiak egiteko gauza da. Berak dio Satanasen semea dela eta pertsonak ez duela beretzat inongo sekreturik. Badakiela ze egingo duen

bere aurrekoak mugimendua egin aurretik. Ikaragartizko pitxadura dauka eta edozer egiteko gauza da.

—Ertzaintzak adierazi digunez 500 polizia, bi helikoptero eta inguruko herrietako udaltzainak ari omen dira bere bila. Zuk, bestalde, zer gomendatuko zenieke gure entzuleei?

—Ba, ateak giltzaz ixteko eta ez uzteko 20 urte dituen ile horidun bat... KLIK!

Andoaindarra irratia itzali du.

—Barkatu, izan ere mareatzen ari naiz eta irratia ez du holakoetan faborerik egiten.

—Ongi... dago.

*"Nireak egin dik. Hogeitarte, ile horia. Ez zeukat dudarik. Nire aldamenekoa duk psikopata. Satan-Txiki... ezagutzen ote du Goku? Baina-makila baino eukasagoa duk-eta! Baina erotua dagoenari hobe bakean uztea. Disimulatu beharra zeukat, ze obartzan baduk badakidala nor den, nireak egin dik. Elkarrizketarako gai interesantea plazaratuko diat, ea horrela ni ez erasotzea erabakitzan duen. Mekauen Satanas! Dena bibotz onekoa izateagatik! Zer dela-eta hartz behar nian tipo hau? Orain nola kendu gainetik? Errealari burnz hitz egingo diat."*

—Ze, atzo ere Errealak galdu?

—Bai?

—Ez al zenekien?

—Ez. Ez zait futbola atsegina.

*"Psikopata izan behar zian bonek! Normala psikopata izatea. Ez basaik futbola gustatzen nola izango baitz ba pertsona kabala. Hurrena ere akabatuko dük besteren bat."*

—Aizu, zuri al dezaket naranja hemen? —galdetu du gazteak— gose handia dut eta...

*"Esaiok boni ezetz! Ja ta sartuko zidak gibelean aitzora gutxienez."*

—Noski, noski. Jan lasai.

Hori esatearekin batera, bidailagunak bere ezker eskua poltsan sartu eta is kilo laurdeneko naranja handia aterdu. Begirada goseti batez so egin dio naranjari. Eskubiko ukabila zabaldu du eta hantxe, behatzan artean, laban zorrotz-zorrotza agertu da. Bidai osoan zetaman ukabila itxita. Orain agerian geratu da zer zuen gordea. Behatzan mugimendu azkar baten ostean, labana erabat zabaldu du. Hogeitzen metroko altzairu zuri-zuria. Beste eskuaz naranja jaso eta labana sartu du naranjaren

bihotzeraino.

—Labana erabiltzen erraztasun handia duzu.

—Bai, harakin lanetan jardun nintzen denboraldi batez.

*"Gabonetan, guraso-zopa egiten. Honela ez zegok aurrera egiterik. Kabroi hau bazterrean utzi behar diat. Baino egin bebarrekous ondo egin bebar diat. Aukera bat izango diat soilik eta gaizki irtenez gero... ez diat pentsatu ere egin nabi. Oportunitate bakarra. Agian, argien aitzakiak balio izango zidak."*

—Iluntzen hasia da. Izañ ere, orain goiz iluntzen du.

—Bai, egia. Azaroan egunak oso motzak eta gauak oso luzeak izan ohi dira.

—Argiak piztu nahi nituzke baina ez dakit ondo dabiltsan. Barzuran urrutirako argia itzaldu egiten da.

—Nahi baduzu, gera ezazu autoa eta esango dizur ondo edo gaizki dabiltsan.

*"Kosta zaik beita jatea. Iriten, irten... emango diat kakoa rekin!"*

—Benetan, ez dakizu nolako faborea egiten didazun.

Ilehoridunak labana jaso, naranja leihotik bota eta gerrikoaskatu du, gidariak autoa ostatu baren parking-ean aparkatu duen bitartean. Gizonaren aurpegian urduritasuna nabari da. Ezpainen gainean izerdi-tanta txiki distiratsuak ikus daitezke eta begietan ezohizko malko kantitatea. Gazteak atea ireki du eta zangoak lur gainean ipini orduko ipurtezurraz atea bultza eta irxi

du. Bizi-bizi argien aurrean jarri da eta gidariak noiz piztuko zain geratu da.

*"Orain lasaitu. Martxa sartu, azeleragailua sakatu, enbragea askatu eta osoa. Bat, bi eta hiru!"*

Opel Kadetta ziztu bizian dos parkingetik errepidea. Berrogeita hamar kilometro orduko abiaduran eta motorra lehettzean, martxa aldatzeko eskatuz. Bigarrena sattu du, gero hirugarrena, gero laugarrena eta, azkenean, bosgarrena. Orduan lasaitu da zertxobait gidaria.

*"Ondo ote dago?"*

Lepoa mugitu eta ispilutik begiratzeari ekin dio. Han urrutian gazte ilehoriduna ikus daiteke zutik besoak zabalduta, batera eta bestera mugituz. Ondo dagoela dirudi. Baino bere poltsa korxean dago. Gizonak poltsa hartu eta irekita dagoen eskubiko leihotik bota du. Lurrean bost txipi-txapa egin eta telefono-zutabe haren alboan geratu da.

*"Hau duk hau bizitzaz arriskatzea! Eskerrak Jauna bizirik naizela. Eskerrak..."*

Hori pentsatzen zuenarekin batera, atzeko aulkiko manta tartetik irten eta lepotik tinko heldu dut. Poltsikorik aizto luzea atera eta lepoa ebaki diot. Odola isurtzen ari da zauritik eta bere bularrean behera odol-suriak doaz. Nerbioen eraginez gorputza mugitzen ari da baina laister geldituko da, korxea geldituko den bezala. Gero, hilotsa atzera bota, kotxea hartu eta afaltzera, ja, ja, ja...

# Amonatxoa

Nerea Orbañanos

Amona Maria, denek goxoki deitzen zioten bezala, laurogeitaka urte zituen emakume zaharkitua zen. Bere ile zuri hark grazia berezia ematen zion eta urreratzen zen orok ikus zezakeen irribar gozo hora eta begi alai haien miretsiak izan zirela garai batean.

Bere seme-alabak ezkonduz joan ziren eta, senarra ere hilik zegoenez, bakarrik bizi zen. Hala ere, bere begirada samurra eta irribarra ez ziren inoiz bere aurpegitik desagertu.

Jende ugarik pentsaru ohi zuen emakume honen erakarrigarritasunari buruz, ea zer ote zeukan emakume hark bere etxera adin, sexu edota izakera ezberdinako jendea urrezatzeko. Egun nahiz gaua izan, etxe hartako ateak ez ziren inoiz ixten.

Denak, etxerexo hartara iritsi bezain laister, ohartzen ziren han lasaiago arnas zitekeela. Loreek clena betetzen zuten, etxeeko hormetatik hasi eta jardineko edozein txokoraino. Txorien abestiak ere hain ziren ederrak...

Amona Mariak, goizero bezala, loreak erregaiatzen ari zenean, kanpoko hesitik begi bizi barzuk begira ziruela ohartu zen.

—Kaixo mutikol! Zer egiten duzu hor kanpoan, aurrera egin gabe? Lagunduko al zenidake?

Julen —hala baitzen muriaren izena— mantso-mantso sartu eta amonaren ondoan geratu zen.

—Lorontzi hori hemen goian jar al diezadakezu? Zaharra naiz eta nire hezurrak gogorrak daude.

Julenek, isilik, lorontzia hartu eta amonatxoak esandako lekuari utzi zuen.

—Oso ongi. Orain hau han era beste hau hementxe.

Amona Mariak zenbait agindu gehiago ematen segitu zuen, mutila izerditan ikusi zuen arte.

—Ongi —esan zuen amonak azkenean— oso indartsua zara duzun adinerako, zalantzak gabe ez baitituzu izango 15 urte baino gehiago.

Julenek burua altxa eta ashopaka zera esan zuen:

—Ez, 14 bakarrik.

—Ongi, ongi. Nork harrapatu! Baino goazen barrura, gazta-puska ederra eta ogia irabazi dituzu-eta!

Eta amonak, Julen sorbaldatik hartuz, bere etxeko txoko guztia bezalaxe garbia eta alaia zen sukaldaraino gidatu zuen.

—Urreratu ezazu aulkia hori mahaira eta eser zaitez.

Bitartean, amonak ere berdin egin zuen. Amona Maria mutikoak ogia eta gazta jaten zituen artean, begirik kendu gabe egon zen eta azkenean zera galdeztu zion:

—Etxe honetatik hurbil bizi al zara?

—Ez, mendiaren bestaldean bizi naiz.

—Eta honaino etorri al zara?

—Bai, ez daukat zereginik.

—Ez? Ez al zara bada eskolara joaten?

—Ez, ez! Ez naiz inoiz joan. Han irakasten dutenak ez du ezertarako balio.

—Agian arrazoia izango duzu. Zuk mutil azkarra dirudizu eta jakingo duzu.

Julen, txunditurik, amonari begira geratu zen. Norbaitek modu horretan hitz egiten zion lehenengo aldia zen.

“*Ni azkarra?*” —pentsatu zuen—. Denek asto bat eta ejjakina zela esaten zioten Horregatik beti iheska zebi-

len eta ez zen inoiz eskolara agertzen.

—Beno —esan zuen amona Mariak— nire untxiei jaten eman behar diet. Horrela bada, badakizu non bizi naizen era etxean ez banago, sartu eta nahi duzuna jan dezakeru.

Julen zutitu eta pentsakor joan zen. Amona leihotik begira egon zitzaion ezkutatu zen artean.

Biharamonean amonak leihoa zabaldu zuenean, Julen ikusi zuen, atariko harri kozkor baten gainean eserita.

—Aitzu mutil-motz, ez al dakizu nire etxeko area ez dela inoiz ixten? Zatoz barrura, kanpoan hotz egiten du-eta!

Julen barrura sartu zenean amonak gosaria eskaini zion:

—Tori, har ezazu esne bero pixka bat, neuk ere hartuko dut-eta.

Amona mutikoaren ondoan eseritzen:

—Goiz jeiki zara!

—Bai, izan ere gauza bat galderu nahi nizuke.

—A bai? Bota bada.

—Zuk ez al duzu uste ezjakin bat naizenik?

—Zu ezjakina? Bizkor aurpegia duzu; ea, erakutsi eskuak.

Julenek bere esku laztuak luzatu zizkion eta amonak gozoki hartu zituen.

—Ikusten? Nik esan bezala, esku hauek txori, zakur eta zaldiez asko ulerzen duten mutiko batenak dira.

—Bai, hala da. Nola dakizu?

—Igarti egiten da. Baino, nork esan dizu leloa zarenik?

—Denek.

—A bai? Eta zuk kasu egiten al diezu? Begira, bizitzan zeure barrengo ahotsari bakarrik egin behar diozu jarraian. Gainerantzeakoak ez du ezertarako balio. Orain, lagunduko al didazu? Begira, untxi mordo bat dut hemen, ehun izango al direla uste al duzu?

Julen isilik geratu zen. Ez zekien zenbatzen. Amonak zeharka begiratu zion.

—Bat luzatuko al didazu?

Julenek hasperen egin zuen. 10 arte bakartik zekien kontatzan. Untxi bat hartu eta amonari luzatu zion.

—Ongi, zuk ba al dakizu zergatik erortzen zaien ilea hain erraz?

Julen garrantzitsu sentitu zen. Berak asko baitzekien animalien munduaz. Untxia aztertu eta zera esan zuen:

—Zorriz beteta dago eta gainera untxi hauetako gehiago behar dute.

—Hara! Esaten nuen bada nik zerbait gertatzen zi-txela... Zer egin dezaket?

Julenek untxia amonari itzuli eta korrika hasi zen. Amona ohartzerako beso-bete belar zekarren.

—Honekin konponduta dago.

Julenek beste mutiko bat zirudien. Bere aurpegia alaiagoa zen eta etengabeko azalpenak ematen ziharduen. Untxi-zuloak garbitu eta belar usaintsuekin untxien lepoak igurtzitzen zituen.

—Zuk ez al zenekien hau, amona?

—Ez, ez. Gainera untxiek ez dute zure besoetarik alde egiten.

—Ez noski! Badakit nola zaindu.

Julenek aurpegia hurbilten zuen animalien muturera.

—Nirekin bazkaltzera geldituko al zara?

—Uzten badidazu... Nik, trukean, guzti hau zuzenduko dizut.

Amona Maria etxera sartu zen eta denborarik galdu gabe bazkaria prestatzeari ekin zion. Geroxeago, Juleni bazkalordua zela jakinarazi zion.

—Zu ikustea gustora jartzen nau! Sartzen zaren bakoitzean udaberria datorrela dirudi. Baina mugitu, eskuak garbitu nahi al dituzu?

—Bai, hala egingo dut.

Mahaira itzuli zenean, denboraren poderioz horixka geratu zen liburu bat hauteman zuen bere plater ondoan. Berehala eskuartelean hartu eta ahozabalik begiratu zuen.

—Zoragarria!

—Gustatzen zaizu?

—Asko, zer esaten du?

—Itxaron, betaurrekoak behar ditut.

—Nik ekarriko dizkizut amona.

Julenek salto batean betaurrekoak ekarri eta amonari sudur gainean jarri zizkion.

—Eser zaitez nire ondoan. Nik irakurri bitartean, zuk marrazkiak ikusiko dituzu.

Amona Maria mantso-mantso irakurtzen hasi zen. Julen, berriz, burubelarri ipuinean sartua zegoen, berako protagonista zela amets eginez. Azkenean amonak utzi egin zion irakurtzeari,

—Zer dirudizu?

—Ezin duzu irakurtzen segi amona?

—Jadanik berandu da eta nekatu egiten naiz, baina hona etortzen zaren bakoitzean zatitzoren bat irakurriko dizudala agintzen dizue.

—Ongi da, joan egingo naiz.

Geroztik askotan agertu zen Julen amona Mariaren ondora. Amonak etxeko lanak egiten zituen bitartean mutikoak egurra ebaki edota animaliei jaten ematen zien. Gero, biak eseri eta amonak irakurketari ekiten zion.

Julen entzuteko prest zegoen egun batean, amonak zera esan zuen:

—Sentitzen dut. Gaur ezin dizut irakurri; betaurrekoak galdu ditut eta zeuk bakarrik begiratu beharko duzu.

Julen mutu geratu zen. Liburua hain zen polita! Esku artean hartu eta begiratzen hasi zen. Jadanik ez zen marrazkiekin konformatzen, historiako mutikopari geratzen zitzaiona jakin nahi baitzuen.

—Zure betaurrekoak aurkitzeko ahaleginak egingo ditut amona.

Etxea goitik behera miatu zuten baina betaurrekoak ez ziren azaltzen. Julen egunero agertzen zen eta lehen bezalako hizketaldiak izaten zituzten, baina Julenek begiek mahai gainean segitzen zuen liburu hartara egiten zuten ihes.

Azkenean, egun batean mutikoak zera esan zion amonari:

—Amona, hemendik aurrera ezingo dut egunero etori. Eskolara joan nahi dut.

Amona beregana hurbildu eta irribarretxoa egin zion zera esanez:

—Pozten naiz, baina lehenengo hizkiak nik erakutsiko dizkizur.

—Benetan?

—Bai, nire seme-alabek ere nirekin ikasi zuten. Eser zaitez.

Julenek eta amonak behin eta berriz errepasatu zituz-

ten orri horixka hain, mutikoa ipuina bakarrik irakurten hasi zen arte. Amona Mariak inoiz baino barre gehiago egin eta pozez txaloka hasi zen.

—Hai ezazu! —eta ipuina luzatu zion— jadanik ez duzu nire beharrak bakarrik irakur baitezakezu etxeannahiz mendian.

# Mundu berria

## Alazne Goenaga

Beltza zuen ilea, beltzak begiak, beltza begirada, beltzak arropak; luroa jantzia zuen, mundua hil zitzaion eta oso minduta zegoen, ezin zuen sinetsi gizartea zer egin zuen. Gorroto zituen gizakiak, gorroto zuen mundura ekarri zuen emakumea, mundura ekartzea ez zion inoiz barkatuko. Sarhak 14 urte zituen eta arazo mental larri bat omen zuen. Hori dela-eta, duela hiru urte Nora MacDowell psikiatratengana joaten zen. Ez zen bere gogoz joaten.

—Baina zuek zer uste duzu, erotuta nagoela, ala? Hemen zuek zarete burutik eginda zaudenten bakarrak, zuek eta hiri madarikatu honetako denak. Ez al zarete konturatzen egiten ari garenaz? Horrela jarraituz gero dena bukatuko da, dena...

Sarha negarrez hasten zen eta korrika ihes egiten zuen. Gurasoek behartu egin zuten, bestela bere munduan sartuko zirela eta, beraz, amore eman zuen eta Noraren kontsultara astean bi aldiz joaten zen. Sarhak amets bat zuen, beste mundu batera joatea, mundu eder batera. Han ez zegoen kutsadurari, han ez zegoen dirurik eta denak bakean eta zoriontsu bizi ziren, gauzak ikasten, poesia irakurtzen eta elkar maitatzan. Baina ez zekien nola iritsi, bidea sastraka ilun batzuez estalia zegoen eta nahiz eta hurrunera so egin, ez zuen ezer garbi ikusten.

Bitartean, bere gelan pasatzen zuen denbora, gela benetan bitxia. Paretak berak margotutako obra abstractuez estaliak zeuden, mila kolore nahastuta, baina zati bat zuri zegoen; han poesiak zituen idatzita:

Lur hauek harrapatuak eta jabe  
batzenak izan surretik,  
gure ibaiek lasterka egiten zuten  
beraien bides urez gainezka,

—Mila esker amona. Ez zaitut inoiz ahaztuko.

Horrela, besarkada bat emanet, Julen joan egin zen. Amonatxo, mutikoa desagertu bitartean, atetik begira egon zitzaion eta ezkutatu orduko, hasperen eginez, eskua mantalaren sakelean sartu, betsurrekoak beti egon izan ziren lekutik atera eta leunki laztandu zituen.

Uren melodia gozoak, basoetako freskura betetzen zuen, eta putzuek marmarka zihardutzen, errakatxoek jolasean eta iturriez itzalean distiratzen zuten.

### Briam

Alfonbra zabal bat, sillooi marroi bat, bizpahiru egutegiko aulki, aldizkari batzuk zituen mahai kantoiztrotz bat, koadro batzuk hormetan eta leiho bat. Noraren kontsultako itxarongelan zegoen. Bakarrik, ohi bezala,

—Kaixo Sarha, sar zintezke.

—Kaixo Nora.

—Etxan zintezke. —Han zegoen sillooi beltza gelaren bazter batean, han erzaten zen Sarha bere burukominak kontatzeko.

—Ea, konta iezadazu, zer egin duzu gaur?

—Ezer berezirik ez, koadro bat pintatzen hasi naiz eta poema batzuk irakurri ditut.

—Ekarriko al didazu noizbait koadro eta poemaren bat?

—Ba... zergatik ez?

—Hori oso ondo dago. Aurkitu al duzu zure mundutako bidea?

—Ez dakit. Atzo gauza arraro bat gertatu zitzaidan.

—Ea ba, konta iezadazu.

—Ba nire gelan nengoena, ezerezean pentsatzen, kandela batzuk nituen piztura eta, bat-batesan, itzali egin ziren.

- Eta zure ustez zer esan nahi du horrek Sarha?
- Ez dakit. Agian beste mundutik norbait etorriko da nire bila. Zure ustez laister joango al naiz?
- Ez dakit. Bainazuk nahi baduzu, nik onena nahi dut zuretzar.
- Laister zerbait gertatzea espero dut, benetan.
- Sarha gorantz so geratu zen. Begi bietatik malko bi irristatu ziren bere masail leunen gainetik eta:
- Ezin dut jasan —esan zuen isilki.
- Nora hunkituta geratu zen eta etxera joan eta lasai lo egin zezan eskatu zion.
- Sarha etxera heldu eta ohean lo geratu zen, berehala arras artega eta hotz sentitu zen eta begiak zabaldu zituen. Bere aurrean izaki zuri batzuk zituen begira.
- Sarha, entzuten nauzu? —itaundu zion izaki barek.
- Bai, baina nortzuk zarete?
- Jainkoaren erreinurik gatoz, zuri bidea erakustera bidali gaitu. Gurera etorriko zara eta zoriontasuna zet den jakingo duzu. Behin-betirako mundu zatar hau arzean utziko duzu.
- Baina...
- Ez dago bainarik. Gizon beltza etorriko da zu gurera ekartzen. Ez duzu zertan beldurturik, gurekin salbu zaude. Zu salbatzera etorri gara.
- Gizon beltza?
- Bai, gizon beltzak erakutsiko ditzu orain arte ikusten ez zenuen bidea. Beno, Jainkoak dei egin digu, joan beharra dugu. Ez ahaztu egun hauetako batean gurera etorriko zarela. Laister arte.
- Izaki zuriak desagertu egin ziren eta Sarha lo geratu zen. Ez zen artega, ezta hotz ere.
- Kaixo Sarha.
- Kaixo Nora —Sarha urduri zebilen eta silloi beltzean erzan gahe hizketan hasi zitzaion.
- Nora, atzo etorri egin zitzaizkidan.
- Nortzuk Sarha?
- Jainkoak bere aingeru zuriak bidali ditu niri bidea erakusteko.
- Eta zer esan zizuten?
- Egun hauetako batean gizon beltza etorriko zaidala bila eta beraienera joan ahal izango dudala, ez dudala kezkatu beharrik.

- Beraz, laister joango zara, ezta?
- Bai, beno, banoa bestela ez nau aurkituko.
- Sarha!
- Bai?
- Ikusi arte. Ados?
- Ados.

Sarha etxera itzuli zen eta bere gelan sartu zen. Han zegoen. Gizon belrza han zegoen. Beldurra bere gorputzaz jabetu zen baina Sarhak bazekien heldu zela unea. Kantoi batean zeukan paketea eskuartean hartu eta lasterka abiatu zen. Gizon beltza atzetik jarraika zuen, heldu zela momentua eta alperrik zela ihes egitea esanez.

Sarha arnasestuka iritsi zen Noraren kontsultako atera eta hantxe utzi zion paketea.

—Ea ba nora naramazun! —oihukatu zion gizon beltzari.

Gizon beltza bazihoan denen gainerik eta Sarha atzetik korrika zihuan, amildegia batera iritsi arte. Arrokak lo zeuden eta ez zirudien gertatuko zenaz jaberuko zirenik. Beraz, Sarhak gizon beltzaren atzetik salto egin zuen bere bidaiai amaiera emanez.

Zortziak laurden gutxi. Norak ate ondoan dagoen paketea jakinmin handiz ireki zuen. Koadro bat zen, koadro abstraktu bat, baina Norak hartu zion esanahia. Geroko konturatu zen lurrera papertxo bat jauzi zela eta hura jaso ondoren irakurtzen hasi zen:

Bide egokiaren bila nenbilen  
eta aurkitu ondoren  
bidaiai hasiera eman diot  
irrintzi gorri batekin  
estali ditut  
egunaren eta gauaren  
ate meharrak.  
Sega zorrotz batekin  
ebaki ditut  
honera eta haren mugak  
eta ondoren  
hil egin naiz.

### Sarha

Norak koadroa horman zintzilikatu eta zeturantz behatu zuen:

—Iritsi zarela espero dur... Ikusi arte. Ados?

# *Esgintzea*

Xabier Sukia

1

Ikasten daramatzat  
hamar urte-edo  
beti izan naiz maixu  
hoien bezero  
zazpitan jeikitzen naiz  
ia egunero  
gaur iratzargailuak  
deitu eta gero  
altxatzeko, zero  
mantapean hero  
hainbeste endredo  
ez al nago ero?  
autobusak aldegin  
dit honezkerot!

2

Salto barean altxa  
ta erropak hartu  
alderantziz jantzita  
ez naiz ohartu  
ezkerreko besoa  
eskuinean sartu  
azkenik etxetikan  
irtetea lortu  
beldurra baztertu  
ta korrika lehertu  
koska bat agertu  
saltatzeko gertu  
lurreratzean kraka!  
hanka okertu.

3

Etxera bueltatzeko  
nengoen perezan  
eren eginaz zakur  
galduen gisan  
nik autobusa segi  
harrapatu nezan  
atzetikan korrika  
gelditzeko esan  
ni tontoa izan  
sartu nintzen 'Pesan'  
ta nengoentzat  
mina ezin jasán  
etxeen gelditzea  
askoz hobe zan.

4

Zortzitan azterketa  
matematiikekin  
eta hortaz piperrik  
ere ez nekin  
aulkian eserita  
nere hankarekin  
boligrafoa hartuz  
ariketei ekin  
mina berdin-berdin  
horkatila erdin  
aguantatu ezin  
hura senda zedin  
holo azterketarik  
ezin da egin.

5

Azterketa bukatuz  
zangoa igurtzi  
gehio handi ez zedin  
eskuez eutsi  
nere baitan esanaz:  
"Ez ote dut hautsi!"  
mina ugari eta  
lasaitasun gutxi  
pozak ezin lizi  
mina zan nagusi  
zangoa ikusi  
ta zegon itsusi  
balioia ematen zuen  
behatz eta guzti.

6

Maixuari esan diot:  
"Zangoa begin"  
ta erantzun dit; "Gaizki  
jartzen ari da"  
autoa ekarri du  
patio erdira  
ta eraman nau auto  
barruko aulkira  
giltzari eman bira  
martxan jarri dira  
gurpilak sikira  
ta orduerdira  
joan naiz Donostiako  
enfermerira.

Biok iritsi gera  
azkar eta garaiz  
egunon esan nere  
xarma ta dohaiz  
bi erizain begira  
irribarre alaiz  
hanka ahaztu eta  
neska haien usaiz  
errubia, Larraitz  
ta morena, Alaitz  
keinua bota maiz  
hori ez denez gaitz  
hurrena ere bertiz  
joan behar naiz.

Baina suerteak ez du  
irauteen betiko  
gizon bat azaldu ta  
plan denak kito  
esan zidan jarriaz  
zutik eta tinko:  
"eskuinean esgintze  
daukazu mutiko"  
eta nerekiko  
oinazean ito  
hainbat txoropito  
ez ditut begiko  
ezkertrarekin eman  
diot ostiko.

Handikan irten eta  
etxerantz hurbiltzen  
nola petrikilo bat  
urre bizi zen  
sendagile hoberik  
ez dago Parisen  
hasi zen nere hanka  
olioz bustitzen  
gero igurtzitzen  
ta ez zen gelditzen  
ni, berriz, sufritzen  
edo erdi hiltzen  
hiru minuturako  
saltoka nintzen.

# Ametsetan

*Urko Esnaola*

Jardun naiz gaur ametsetan  
fantasmaz inguraturik  
Eta beren ahoetan  
ez zuten beste galderarik

Hauxe zen beren hitza  
ez zioten beste ezer  
Zer da bizitza  
zer da bizitza, zer...

Gure izatearen kezka  
niri nola ez importa  
horregatik horta  
kalera joan naiz galdezka

Hurbildu naiz etsitu baten aldamerena  
zuzendu diot galdea  
Eta esan dit begiratz bezera:  
**HERIOTZARA DARAMAN BIDEA**

Gogoeta ilun bat horra  
Hori ai da izaita?  
Heriotzaren atea?  
Beste zerbait izango da  
edo nahi dut izatea

\*\*\*

Bakea bedi zurekin  
apaiza zait mintza  
Esango dizut bi hitzekin  
gaztetxo, zer den bizitza:  
hara garbi geldi dadin  
**JAINKOAREN HITZA**

Dena ulertuko nuen  
hori dur behintzar aburu  
Jainkoaren hitza zer den  
jakingo banu seguru

Ikusi dut poeta gaztea  
itsasoarekin berriketan  
Eta otu zait galdera egitea  
Ea bizitza zer kristo ote dan

Nik nahi nuke izatea:  
Maitasunaren kabi  
Ametsaren bide  
Ilusioen atea;  
Iturri bat zoriontasunez betea  
Zinetatik denok  
zilegi genukeen edatea.  
Baina... egia dizut esanen  
laguntxo maitea  
Hau da nahiko nukeena izatea  
baina ez dakit zer den

Ikusi dut amona  
kale izkina baten  
Haur txikiiek zegona  
ipuin barzuek kontatzen

Eta ausartu naiz galdetzen

hari nere galdera:

Amona, zer da bizitza?

Zertarako bizi gera?

Lasterketa bat da bera  
esan dit zuhur hitzakin  
lehenengoak irabaz dezake  
eta azkenekoak berdin  
nahikoa baita bukaeran  
pozik iristearekin

Helburu bat dugu gurekin  
deitzen diogu POZA  
Hau nahi genuke osa  
beste helburutxoekin:  
Egi bihurtuz amestu duguna  
Amets eginez ilusioarekin  
Ilusioz maitatuz laguna  
Lagunduz indar guztiekin:  
Egi bihurtzen amestu duguna...

Guztiok izan gaitezen egunen batetan  
irabazle lasterketa horretan

# *Bi bondar ale gara*

*Imanol Alkorta*

Basoaren erraietan galdua...  
...zur oihu emeak  
zure eztarriaren semeak,  
hondarrezko ordulariaren itzaletik  
hurruntzen nauen ahala.

Ihes, ihes, ihes.  
Ihes, mundua ez baita borobilak.  
Ihes, Verneren azken faroaren bila.  
Ihes, muga bakarra, mugetan  
sinistea baita.

Ihes, egintzak ihes.  
Dasta ilargi ezberdinak, egunero

besarka zuhaitz berriak, gauero  
kamaleoitu hadi edozertaz  
ezkuta hadi itsasoaren sustraietan  
non ia infernuarekin  
xerak egin daitezkeen  
non, beraz, ura eta sua,  
estrainekoz, amorante diren  
non Judasen ume malkoek  
Dorothyren txapazko laguna  
ere hunki dezaketen  
ametsezko etemuetara.

Ezin ihes egin osteria, kafetegiko  
arratsen oroi men absurdotik,

arpa eta bibolinen  
oihartzun liluratik...  
...baten baten odol xamurra  
zurruparuaz jaio,  
baten baten ezpainen  
besarkadatik loratu,  
baten baten iguzki gorri  
korapiloetan barna galdu  
eta udazken itsasoetatik  
ematuriko lamia finaren  
urdin urdinaren negarrean  
hondoratu  
nintzenean.

Izarren betikara basatitik  
elur arrosa zerion hartzan,  
argia hain zen handia  
ezen su bilakatu zen zu,  
eta zilar erraka hegietan  
dantzatu genuen, suzko arropaz,  
biziaren akelarrea.  
Emeki emeki elurra urtzean,  
lurrundu ziren sekretu eta  
irriki simulatuak eta  
maitasuna genuen asmatu.

Zure zetazko hitzen xaramelak  
behinolako desiren aberrira.

ihesteko dio behin eta berriz.  
Behin eta bertiz berandu  
dela jakinik ero.  
Denboraren hondarrak isurtzen doaz...  
barrea, desioa, ferekak  
erretzera kondenaturiko  
sorgin lirainak.  
Orlegiak, Urdinak, Argia  
bera beltzez mizorroturik,  
eguna gauaren  
eztarrietan irentzia  
iristen ez diren olatuak, bustitzen ez duen ura,  
itotzen doan itsasoan,  
so egite hutsaz hausten  
diren diamanteak,  
egunkari gabeko igandeak.  
Denboraren hondarrak isurtzen doaz ...  
eta zertarako gelditu,  
iada gorputza estalia dut  
aizu, zure edertasuna lokatzu  
alda hondarrezko ordularian?  
Laister naiz  
historiaren zati,  
denboraren zati,  
hondar ale hari  
zeu zaren legez...  
...bi hondar ale gara.

# Orioko Udaleko Euskara Batzordearen laguntzari esker argitaratu da gehigarri hau

dearen jokurako irrika.

Argi dagoena da, bai Aian eta baita inguruko herrietan ere, diru asko egon dela jokoan bi aldeetatik. Batzuek irabazi, beste batzuek galdu, argi dago harrijasotzajleen ahal zuten guztia eman zute-la plazari.

## Abenduaren 4a

Azpeitiko zezen plazan, urteko harrijasotze apusturik handiena jokatu zen abenduaren 4an. Hainbeste itxarondako eguna zen askoren-tzat. Jendea erruz hurbildu zen, federazio kideen arabera guztira 1.500en bat ikusle.

Oso ikusgarria izan zen bi harrijasotzaile hauek egindako lana. Landarbidek 118 aldiz bizkarreratu zuen 125 kiloko harri kubikoa eta Izetak berriz, 130 aldiz Goenatxo zenaren marka ia-ia haut-siz. "Hasieran nire burua ondo ikusten nuenez, lasai aritu nintzen. Lehenengo txandan hiru jasoaldiren diferen-tzia atera izateak, lasaiago ibiltzen lagundi zidan. Eta bide batez, marka hausten saiatu nintzen" esan digu Izetak.

Landarbidek adierazi di-gunez, ez zituen nahi adina jasoaldi eman. "Gaizki aritu nintzen, kemenik ez nuela antzematen nion neur buruari. Ikusten nuen ezin

nuela, baina hala ere, lan txukuna egiten eta ahal nuen guztia ematen saiatu nintzen", esan digu Agustinek.

## Aurrera begira

Agustin Arrutik bere al-detik, ez duela beste apusturi-k jokatuko eta harri jasot-zeari agur esango diola ai-tortu digu. Erabaki hau ez du orain hartu Landarbidek. "Lehendik ere pentsatua nuen. Apustu hau finkatu aurretik, topeko harri bat, 200 kiloko bateko, jasotzen saia-tu, eta dena uzteko asmoa nuen".

Izetak bestalde, hau izan du apusturik garrantzitsue-na, eta atsedena hartukoduen arren, hemendik pare bat hi-labetera Goenatxoren marka hausten saiatuko dela esan digu.



Landarbide harria jasotzen

## IZETA

1. txanda	2. txanda	3. txanda	1. txanda	2. txanda	3. txanda
1 min.: 4 Jaso.	1 min.: 4 Jaso.	1 m: 4 Jaso.	1 min.: 4 Jaso.	1 min.: 4 Jaso.	1 min.: 4 Jaso.
2m.: 5 "	2m.: 5 "	2m.: 4 "	2m.: 5 "	2m.: 4 "	2m.: 4 "
3m.: 4 "	3m.: 4 "	3m.: 4 "	3m.: 3 "	3m.: 4 "	3m.: 4 "
4m.: 4 "	4m.: 4 "	4m.: 4 "	4m.: 5 "	4m.: 4 "	4m.: 4 "
5m.: 5 "	5m.: 4 "	5m.: 4 "	5m.: 3 "	5m.: 4 "	5m.: 3 "
6m.: 4 "	6m.: 4 "	6m.: 4 "	6m.: 4 "	6m.: 4 "	6m.: 4 "
7m.: 3 "	7m.: 4 "	7m.: 4 "	7m.: 4 "	7m.: 3 "	7m.: 3 "
8m.: 4 "	8m.: 4 "	8m.: 4 "	8m.: 4 "	8m.: 4 "	8m.: 4 "
9m.: 5 "	9m.: 5 "	9m.: 4 "	9m.: 5 "	9m.: 4 "	9m.: 4 "
10m.: 5 "	10m.: 5 "	10m.: 8 "	10m.: 3 "	10m.: 5 "	10m.: 4 "
Guztira: 43	Guztira: 43	Guztira: 44	Guztira: 40	Guztira: 40	Guztira: 38

## LANDARBIDE

Guztira: 118

## JAUREGI

Bakailua, legatza, kogotea, txuleta, arkumea eta etxekeko postreak

Tel: 83 02 15



**Benta Berri**  
Euskal sukaldaritzan berezitasuna  
Tel: 83 42 75

## KANUA

**Gure herriko janari tipikoak**

Tel: 83 43 22



## Poteo herrikoia Gabonetan

Frontoiko obrak direla eta, aurten ez dugu musika talde-rik izan Gabonetan, baina jendea festarako gogoz dagoenez Eguberri egunean "poteo" herrikoia antolatu zen parte hartu nahi izan zuen guzientzat. Trikitilarien doimur alaiarekin jende asko bildu zen eta azkenean, giro ezin hobean, talde handi bat osatu zen elkarrekin afaltzea joateko.

## Hasi dira frontoiko obrak

Frontoia berritzeko lanak hasiak dira dagoeneko. Eskolatik hurbil dagoenecoporal aprobetxatu nahi izan dita botatze lanak egiteko, arriskurik izan ez dadin. Abenduaren 26an hasi ziren frontiseko pareta botatzen eta eguraldiak lagunten badu, espero dute herriko jaietarako frontoi berria bukatuta egotea.

## Eguberritako festa programa

Eguberritako jaiei hasiera emateko ikastolako haurrek zenbait lan antzeztu zituzten abenduaren 23an. Abestiekin batera Olentzero ere iritsi zen, eta oporei hasiera ona emateko txistorrada bikaina izan genuen.

Urtarrilaren 4an berriz, eta arratsaldeko 5etan, gogoratu Takolo, Pirrutx eta Porrotx pailazoen saio izango dugula. Bizar -zuri ere etortzekoa omen da hauen eskutitzak jasotzeko.

### Iribar barnizatuak

Altzari dotore eta  
luxuzkoak

Tfnoa: 83 58 20

### Landa nekazari tresnak

Nekazari tresnen salmenta eta konponketak.  
FERRARI eta MASSEY FERGUSON traktoreak, RAPIT eta  
RASANT segadorak eta ileradoreak, JONSERED  
motosierrak, PARTNER desbrozadorak

Tfnoa: 83 59 28

*Aiako Udala*

*Zorionak eta urte berri on!*



**SEGA jatetxea**

ezkontzak, bataioak,  
komunioak

Tfnoa: 83 07 16 Erreka auzoa

# Don Joakin Arostegi: bizitza bat



Berorrika hitz egiten omen zioten lehen gehienok, orain berriz zuka mintzatzen omen zaizkio. Halere, poza hartzen du norbaitek "Joakintxo" edo "Aizak hi Joakin" esaten badio. Zarautzen bizi da, baina Orion jaioa da eta inork ez bezala maitatzen du gure herria.

---

NERE MANTEROLA

KARKARA: Zuri nondik datorkizu bokazioa?

D. Joakin Arostegi: Izeba monja bat baneukan beti Jaungoikoari eskatzen ziona bere iloba bat izan zedila apaiz. Bestetik, nire amonak egun batez esan zidan: "Apaiz egin nahi al dek?" Eta nik: "Apaiz egiten banaiz nik D. Jose eta D. Joakin nek baino sermoi hobeak egingo nituzke..." Garai haietan, mutil koskorra nintzela, bai tailerrean eta bai Orioko plazan nire inguruak sermoiak egiten nizkiak, ez dakit zer esaten nien baina... Tailerrean pintxeak zeuden, eta tailerra garbitzen zuten langile guztiak joan eta gero, kaldera gainera igo eta handik hitz egiten

nien eskupeko baten truke.

Niri bokazioa Jaungoikoa gandik datorkit, baina Jaungoikoa mundu honetako gauzatzen baliatzen da, nik hizlaria izan nahi nuen eta gero, hamaika hitzaldi emana naiz bizitza osoan. Baina, bokazioa, Jaungoikoagandik.

**K.: Iparraldean egin zinen apaiz, nola da hori?**

J.A.: Gerrak hezurretarainoko beldurra sartu zidan. Nahiago nuen herriaren alde bizi, hiltzea baino. Ez dut sekula izan martiri bokaziorik. Garai hartan hiru apaizgai ginen, eta ni bakarrik salbatu nintzen. Beste biak gerra frentean hil ziren. Bestetik, urte bakarra falta zitzaidan apaiz karrera bukatzeko eta halaxe egin nuen, Baiona eta Akitzian egin nituen azken esaminak.

Nire Orioko senideei ez zieten nire lehenengo meza ospakizunera etorzen utzi... Eta negar egiteko gogo gehiago sentitu nuen.

**K.: Lau urte igaro zenituen Iparraldean. Zer harrrera egin zizun Orioko herriak?**

J.A.: Ezin hobea. Bakar bat ere ez zen izan ondo haratu ez ninduenik. Muga igarotzean, Hondarribiko komandanteak nire burua Orioko komandantearen aurrean azaldu eta haren esanetara egon behar nuela esan zidan, Orioko komandanteak oso ondo hartu ninduen, nire informea egin behar zuela esan zidan eta neronek egiteko deskargua. Zergatik alde egin nuen Espaniatik, zergatik ez nintzen lehenago etorri, eta horrelakoak ziren galderak. Gerora jaso nuen horiazkuen dokumentua.

**K.: Erbesteratua ere izana zara...**

J.A.: Bai. Gobernu Zibilik deitu zidaten. Euskal Herrian ezin nuela egon eta

ordenak hartzen Obispatura joateko esan zidaten. Obispatuaren nora joan aukeratzeko eskaintza lizatu zidaten. Nik, herri nafar bat aukeratu nuen, baina Nafarroa orduan beraienbat ere Euskal Herria zela eta, ezezkoa eman zidaten, eta Santanderria joan nintzen.

**K.: Apaiza izanik, zer pekatu egin zenuen?**

J.A.: Francoren garaian, apaiz euskaldun gehienak beren politikarako oso kaltetegari izan ginen. Beren gerrari "kruzada" deitzen zioten, anai arteko gerra alegia, gerra santua zen haien propagandan... Gerra, erlijioaren alde eta komunismoaren aurka. Guk, euskal apaizok, gure jokaerarekin gezurtatu egiten genuen haien propaganda. Ebanjelioa guztiz haserre zetorrela gerrarekin... Odol isurketek zapaldu egin zutela Euskal

Herria... Komunistei baino, beharbada gorroto handiago zeukan euskaldunentzat eta batik bat apaiz abertzaleentzat... hamalau edo hemerotz bat apaiz fusiliatuak izan ziren... eta ihes eginda berriro Euskal Herria gentezenoi, erbesterako pasaportea eman ziguten.

**K.: Zenbat denbora eta nola pasa zenituen erbesteko urte haiiek?**

J.A.: Santanderren egin nuen lehen gauza, beno, Santanderko Islares eta Oriñoneko herri koskorretan, gartzelara joatea izan zen. Islaresko hiru edo lau preso zeuden, eta haiei bisita egiteagatik jendeak "gorri" bezela ikusi ninduen. Nik hitzaldi batzuk egin nituen ni ez nintzelu ez gorrien apaiz, ez txuriyen apaiz... ni denen apaiz nintzelu esanaz... baina hori ere gaizki hartu zidaien. "Espia" antzeko bat jarri zida-

ten, zer esaten nuen bijilatzeko, eta "espia" hura nire lagunik handienetako bat suertatu zen... Ondo pasa nituen hango bost urteak, nire bizitzako onenetakoak... oraindik ere etortzen dira nirekin eskolan ibilitako umetxoak amona zabarturik. Hortik atera nola nagoen ni...

**K.: Azkenik bukatu zen zure erbesteko bizitza, nola?**

J.A.: Bi Guardia Zibil etorri zitzalzidan handik aurrera Euskal Herrian bizitzeko baimena nuela esanaz. Nik bost urte haietan legez ezin nuen Euskal Herria etorri. Bi gotzaitegiko baimena behar nuen... baina ni Euskal Herria nahi adinatan etorri nintzen.

**K.: Kazetari lanak ere egin izan dituzu, noiz idatzi zenuen zure lehen artikulua?**

J.A.: Errepublika garaia

## "Gabonak egun alaiak eta pakea gureganatzeko izan behar dute"

MINISTERIO DEL EJERCITO

Dirección General de Servicios

### Inspección de Campos de Concentración

Apellidos	Arostegui Iturrieta	Nombre	José Quirón
Nacionalidad		Edad	26 años.
Estado	Sacerdote		
Localidad	Orio		
Domicilio o residencia	Guipúzcoa		
Calle			

Clasificado como: Indiferente. al Clérigo Movimiento Nacional.

Madrid, 19 de Julio de 1940.

El Coronel Inspector,

F.D.

EL COMANDANTE PRESIDENTE.

ARRIBA ESPAÑA!

VIVA FRANCO!

Gerra ondoren D. Joakin eman zioten dokumentua

zen, iskanbila handiak sortu ziren, ezkertiar, eskuindar, eliztar, elizaren aurkako... erlilioaren kontrako iritzia zabaltzen hasiak zeuden... Don Joxe Migel Barandiaranek erlilioaren aurka zer salaketa zeuden eta salaketa halei ze erantzun eman behar zitzaien erakusten zigu... oportetan, 1932, urtean, bururatu zitzaidan, egunkarian idaztea "El Dia"n, atal bat baitzegoen euskara idazten zena, ta bururatu zitzaidan Don Joxe Migel Barandiararengandik ikasitako erlilioaren kontrako iritzien erantzunak idaztea. Apaizek ezin zuten obispatuaren baimenik gabe idatzi, eta nik, inoren baimenik gabe eta apaizgai hutsizanik, idazten nituen artikuluak. Nire beste irakasle zen Don Manuel Lekuonak badakit poz handia hartu zuela eta berak bakarrik antzeman zidala ni neu nintzela "Zi Zuri", halere ez ninduen salatu.

#### K.: "Zeruko Argia"n ere idatzi zenuen.

J. A.: Bai, nik ez dut bokaziorik izan idazteko... baina 1964tik 1975era ia astero astero idazten nuen "Zeruko Argia"n. Garai hartan Mikel Atxaga eta Jone Miren Azurza ziren zuzendari, eta gehien bat haien bultzatuta idazten nuen.

#### K.: Zergatik utzi zenion "Zeruko Argia"n idazteari?

J. A.: Mikel eta Jone Miren erretiratu eta beste zuzendari batzuk sartu ziren. Zuzendari berriei ez zitzaien

iruditu nire idatziak oso interesgarriak zirenik eta ez zidaten eskatu. Girorik ere ikusten ez nuenez joan egin nintzen, pena handia hartu nuen, hamaitza urte han idatzi sosik jaso gabe eta "Zeruko Argia" jaso behar banuen ordaindu egin behar nuela... horrek pena handia eman zidan.

#### K.: Zeren gainean idazten zenuen?

J. A.: Original samarra nintzen. Erlilio gaiak serioegi tratatzen zirela iruditu zitzaidun eta jostalari agertu nahiz izan nuen. "On Kosme" apaiz Zahar baten eta apaiz gazte baten elkarritzeta egiten nuen, askotan "On Kosme" barregarri utzi. Elkarritzeta politik egiten nituen, nire ustez, eta jendeak ere atseginez irakurtzen zituen, horrek poz handia ematen du.

#### K.: Nola ikusten duzu KARKARA?

J. A.: Oso iritzi politikaukat. Niretzat pozik handiena gaurko gazteek diruagatik bakarrik ez dutela lan egiten jakitea da. Gaurko gizartearen zoritzarra horida, euskaran politika, edozer gauzatan, zoritzarrez diruagatik ematen direla pausu asko. KARKARAko ameslari bezala agertu zarete, profeta txiki batzuk bezala Orioko herrian, eta profeta txiki batzuk bezala ari zarete esaten: "Oriok duen gauzarik ederreña ez da arrauna, nahiz eta arrauna eta Orioko izena bikainak izan. Oriok euskara du ederreña". Euskara lantzen, herriaren onagatik ikusten zaituztet. Euskara alderik ere egokia da, lantzen diren gaiak ere, errazak herritar gehienentzat, gehiegiz sakondu gabe, neu-

rri onean, oso pozgarria da niretzat KARKARA sortu izana.

#### K.: Bukatzeko, Gabonak ere badatoz. Ez al zaizu iruditzen Gabonen mezua galtzen ari dela?

J. A.: Gabonak datozenan izugarrizko gastuak egiten ditugula iruditzen zait. Ez dugu pentsatzen jendea gosez hiltzen dagoenik eta bitartean gu kontsumismoan erortzen garenik. Nik mezua emango nuke Gabonak ez direla ondo jatea. Ondo dago ondo jatea, baina neurri batean. Gabonak ez dira hori ordea, Jesusen mezua jaso behar dugu, famili arteko harremanak gozatu. Jai hauek pakea gureganatzeko izan behar dute, egun alaia eti ahalegin beharko genuke horrelako egunak urtekogai-nontzeko egunetara pasatzen.



**EROSLE**  
AUTOZERBITZUA

**ZASS**  
ILEAPAINDEGIA  
ESTETIKA  
MIXTOA  
SOLARIUMA  
PERFUMERIA  
San Nikolas, 2 Tfnoa: 83.31.70

# Don Juan Zaragueta

## 20 urte hil zela

Juan Zaragueta Bengoetxea 1974ko abenduaren 22an hil zen Donostian, 91 urte zituela. Oraintxe bete dira, beraz, hogeitarekin. Hori aitzakia hartuta, egoki iruditu zaigu haren bizitzari buruzko datu batzuk bildu eta zuei eskaintza oriotarrok gutxi baitakigu gure herriko filosofo-pedagogo handi hari buruz.

### KARKARA

Zaraguetaren izena ezaguna da Orion, horrela deitzen baita eskola publikoa 1972ko abuztuan inauguratu zenez gerotik. Hala ere, kalean galdezka hasten bagara, konturatuko gara. Oriok eman duen gizon ospetsuenetako bat izanagatik ere, oriotar gehienek ez dakitela askorik hari buruz. Hori ulertzeko kontutan haritu behar da luu urte besterik ez zituela egin gure herrian, beti kanpoan bizi izan baitzen, Madrilen batez ere.

### Lehenbiziko urteak

Juan Zaragueta 1883ko urtarilaren 26an jaio zen Orion. Aita Orioko medikus izan zen hamabi urtez, 1875etik 1887ra bitartean. 1887an Parisa joan zen aita-rekin, harek ginekologia es-

pezialitatea egin nahi baitzuen han. Aitak ikasketak bukatu zituen Donostian jarri ziren bizitzen.

Donostiako marianistekin ikasi ondoren Gasteizko seminarioan sartu zen, 15 urte zituela. Ondoren, 1903an,

Zaragozako Seminario Pontificiora joan zen ikasketak segitzera eta han teologian doktoratu zen. Teologiako doktoratuarekin batera, zuzenbideko lizenziatura ere lortu zuen.

### JUAN ZARAGUETAREN OBRA

Juan Zaragueta asko publicatu zuen. 150etik gora dira argitaratu zituen lanak, gehienak filosofia, pedagogia, sociología eta erlijioari buruzkoak.

Obrarik aipagarrienak honako hauek dira:

- "Filosofía y vida" (1950-54)
- "Pedagogía fundamental" (1953)
- "La filosofía y el lenguaje" (1945)
- "Los veinte temas que he cultivado en mis cincuenta años de labor filosófica" (1958)
- "La sociología de Gabriel Tardé"
- "El cristianismo como doctrina de vida y como vida"

Lehenbiziko biak dira bere obraren garrantzia ulertzeko ezinbestekotzat jotzen direnak, eragin handia izan baitzuten bate garaiko pentsalaren artean. Ortega y Gasset-en eragina nabari da bere obran.

Azpimarratzeko da, baita ere, la berrogeita hamar urtez kolaborazioak datzi zituela Madrilego ABC egunkarirako. Kolaborazio halien aukera bat argitaratu zen: "Cuarenta años de periodismo" tituluarekin eta liburu hanekin 'Francisco Franco' literatur Sari Nazionala irabazi zuen.

### Lovainako unibertsitatean

Garai hartan Lovainako unibertsitateak (Belgika) ospe handia zuen eta horrek erakarrita, hara joan zen 1905ean. Han hiru kurtso egin zituen, notarik altuenak lortuz, eta filosofiako doktoratu lortu zuen.

Lovainan bertan ordenatu zuen apaiz Mercier kardinalak 1907ko abenduaren 21ean. Mercier kardinala irakasle zuen unibertsitatean.

### Madrilen irakasle

Belgikatik bueltan, 1908an, Madrilgo artzapezpikuak Seminarioan filosofiako katedra bat sortu eta Zaragueta eman zion. Seminario hartan hainbat kargu bete zituen errektore izatera iritsi zen arte.

Seminarioan lanean ari zela, ikasteko gogoa ahitu ez nonbait eta filosofiako bigarren doktoratu lortu zuen; orduko hartan Madrilgo unibertsitatean. Doktoratu-te siaren gaia honako hau izan zen: 'Borondatearen teoria psikogenetikoa'.

1917tik 1932ra bitarte Madrilgo Irakasle Eskolan izan zen klaseak ematen, erlijio eta moralekoak hasieran eta zuzenbide eta ekonomia sozialekoak gero, 1932tik aurrera Filosofia eta Letretako fakultateko katedratiko izan zen. Fakultateko filosofiako eta pedagogiako sekzioetan aritu zen irakasle 1953an jubilatu zen arte. Jubilatu eta gero ere doktoratu-kurtso bat ematen aritu zen 1973 arte. Azken kurtsoa eman zuenean 90 urte zituen.



*Orioko Udal Korporazioaren ordezkari batzuk Don Juan Zaraguetaren Madrilgo etxearen izan ziren 1973ko urtarriaren 26an. Don Juanek 90 urte egin zituen egunean. Argazkian azaltzen dira Don Juanekin eta fakultateko lagun batzuekin*

Filosofia, pedagogia eta psikologia arloko erakunde askotan hartu zuen parte eta ezin dugu hemen guztien aipamena egin. Bestalde, oho-rezko kapellau izan zen errege-erreginen etxearen eta, hori zela-eta, sarri izan zituen harremanak familia errealekin

## Omenaldiak Orion

1963ko abuztuaren 26an Orioko Udalak omenaldia egin zion Juan Zaraguetari. Zaraguetak 80 urte zituen orduan. Haren jaiotetxean —gaurengungo Txistulari kaleko 2. zenbakian— plaka bat jarri zen, oraindik ere bertan ikus daitekeena. Egun hartan egin zen meza nagusian Alberto Olidenek Juan Zaraguetak berak konposatuako ‘Ave María’ kantatu zuen. Zaraguetak 16 urte zituela konposatu zuen obra hura nahiz eta geroztik, gukdakigula, ez zuen musika-

arloa asko landu.

Bederatzi urte geroago, 1972ko abuztuaren 21ean, beste omenaldi bat egin zitzaiion Orion eskola berrien inaugurazioa zela-eta. Eskolari Juan Zaragueta izena jarrizitzaiotera, horretaz gain, busto bat jarri zen haren irudiarekin eta ondoan inskripzio bat ere bai.

Handik bi urteratik Madrilen ere Juan Zaragueta izena eman zioten zabalduberryen besterik bat.

Zaraguetak 90 urte bete zituenetan, Udalak ‘seme kuttun’ izendatu zuen eta Udaleko Korporazioa —Jesus Maria Aiestaran alkatea eta zenbait zingotzi— Madrileko joan zen Zaragueta etxera eta han beste omenezko ekitaldi bat egin zitzaiion.

## Zaragueta euskalduna

Bizitzaren parterik handiena Euskal Herritik kanpo

eman bazuen ere, Zaragueta ez zitzaioteari euskara ahaztu. A. Romero Marin —Universitate Konplutenseko irakaslea eta Zaraguetaren laguna zenak— esaten zuenez Zaraguetak beti izan zuen euskararekiko kezka eta atxikimendua eta horrela erakutsi zuen Udalak egin zizkiotz bi omenaldietan ere. Zaragueta Eskolaren inaugurazioan, esate baterako, escola hartan euskal gramatika eta hiztegia ere erakustearen alde hitz egin zuen

## Urtero Oriora

Udala Donostian pasa ohi zuen betidanik, Donostian zegoela, urtero egiten zuen bisitaren bat edo beste Oriora. Herrian familiartekorik ez zuenez, hondartzarantz aldera buelta egin, elizara joan, han errezo batzuk egin eta apai-zarekin egiten zuen hizkalditxoren bat. Jesus M. Aiestaran, omenaldietako

garaian alkate zenak, esan digunet, “*Orio oso gogoan izaten zuen beti eta, nonahi zegoela ere, oriotartza jotsen zuen bere burua. Bere Madrilgo etxeak Orioko museo txiki bat ematen zuen: han koadroa, hemen grabatua...*”

Juan Zaragueta Donostian hil zen 1974ko abenduaren 22an.

Hilabete batzuk pasatzean asmoarekin eterri zen Madrildik 1973ko udara hasieran. Osasuna oso delikatua zuen ordurako eta ez zen gehiago Donostiako Legazpi kalea 6ko etxetik mugitu. Polloeko kanposantuan dago lurperatua, gurasoen panteoian.

*Lan han osatzeko datu gehienak A. Romero Marin Madrilgo Universitate Konplutenseko katedratikoa DVn 1983ko urtarriaren 26 eta 27an argitaratuak bi erreportajeetatik atera ditugut. Jesus M. Aiestaranek ere datu interesgarri asko eman dizkigu. Eskerrrik asko.*

# LITERATUR TXOKOA

Herriko hiru bertsolari gazteri puntua jarri diegu, Xabier Sukia, Urko Esnaola eta Ibai Esoaini alegia. Guk hamarreko handiko lehen puntua eman diegu beraiek bertsoa osa dezaten.

## Zer gertatuko zaigu Orion larogeitamabostean?

Gauzak zeharo alda litezke urte berria hastean, batik bat gure arraunlariek marka guztiak haustean. Batean barra egingo dela ez dela egingo bestean, seguruago jakingo dugu urtea pasa ostean.

XABIER SUKIA

## Zer irakurri nahiko zenuke KARKARA ale batean?

Aukera emanda esango dizut erarik apalenean, pozik nengoke jarriko balu "zorionak" atalean: zoramena da nagusiena orain Campoxtarrenean, Urkok kiniela eginda denak asmatu dituenean.

URKO ESNAOLA

## Noiz etorriko da Oriora bertsolarien txapela?

Esan beharko hori lortzeko ahalegindu ohi garela, baina halere nabari zaizu ezjakinean zaudela, nere burua ondo badabil nik uste dudan bezela, iruditzen zait Sukiak noizbait ekarri izan duela.

IBAI ESOAIN

## KOLON TXIKI

Herriko plaza, 4

Tlfnoa: 83 00 44/13 20 26

## Marisko Biberoak

Telefona: 13 12 97

- Angulak
- Mariskoak
- Arrai finak

Ostalaritza Zerbitzua

Tlfnoa: 83 09 29

## TXOMIN arraindegia

Tlfnoa: 83 27 47

## ARGI-GAIAK

elektrizitatea

argi halogenoak

## Carmen

ARRAINDEGIA

Tlfnoak: 83 05 37 83 33 71

## Eugenio Garmendia

KONTZEILARITZA

Tlfnoa: 83 44 66

# Etxeberri

*Herritik urrundu gabe, kanposantua pasa eta hantxe dago Etxeberri baserria. Hango berri eta zenbait gairen gainean hitz egiteko aukera izan dugu bertako Nikolas eta geroxeago hurbildu den Aldapeko Juanitorekin.*

ANA ITURAIN

Etxeberri, bere izenak adierazten duen bezala, inguruau dagoen baserri berriestako dugu. Nikolas oraingo nagusiaren aitonak, Aiako Aranguren baserrikoa zena, ordungo jabeari erosizion. Hasieran erdia erosiz zuen, lehen bi etxebizitzat bantziren, Etxeberri eta Etxeberri txiki, eta gero heste erdia. Harez geroztik Esnalatarrak bizi dira Etxeberrin. Hau da, Nikolas eta bere emaztea Maria, Ramon semea eta Pili bere emaztea eta hauen bi alabak.

Nikolas kezkatua azaltzen da, Esnal, bere abizenak, jarraipenik izango ez duelako, ilobak neskak baitira. Eta abizen kontuekin jarraituz Brit bere bigarten abizenaren jatorria kontatu digu. Ditudienez Irlandatik dator. Hango gerra zela eta, Britiarrek beste bi familiarekin batera handik ihes egin eta Oriora iritsi ziren. Itsaspen egon eta gero Britt, bi "i"-z idatziz behar den abizeneakoak. Longa baserrira joan ziren, Hangoa zen Nikolasen ama.

Etxeberrik kanpotik txalata dirudien arren, baditu larrean egoten diren hamar bat behi eta baratza.

Beste baserritarrek bezala baserrietako oraingo egoera zaila azaldu digute bai Nikolasek eta baita Aldapeko Juanitok ere. Bizimodu gogorra eta lotua da baserriko eta erosleentzat esnea etabar gero eta garestiagoak izanagatik, baserritarrei gero eta gutxiago ordaintzen die. Gainera orain baserriaren interesak ez omen dira

lehen bezala defendatzen. Lehen baserriaren artean sei aukeratzen ziren eta hauek kabilde izeneko sindikato antzeko zerbaite osatzen zuten. Gero sei horien artean presidenteak aukeratu eta honek Udaletxean zingotzi lanak egiten zituen. Nikolas izana da kontzejal Orion, arrantzale, langile eta beste ordezkariek batera, baina orain hori bukatu egin da, eta berak ez du konfianzia gehigirik politikoengandik. Guzti honek baserriaren desagerpena dakar eta horren froga da inguruau baserriko lanari utzi dioten baserri guztiak. Nikolasen esanetan baserria desager-tzen denean Euskal Herria ere desagertzeko bidean egongo da.

"Oraingo emakumeek ez dute baserrira ezkondu nahi,

ikusi besterik ez dago inguruau baserriean zenbat multzo-zahar dagoen".

Laneko gaiatik festei beruz hitz egitera pasa eta San Martinetan izaten ziren jaia gogoratu dituzte. Datorten urtean hirurogei urte beteko dira San Martin jaia etenaldi baten ondoren ospatzen hasi zirela. Orduko alkateak, Juanito Lontzok, hogeitudo eman zizkien festak antolatzeko. Soinujoleek bi duro kobrautu zuten eguneko festetan jotzeagatik. Hori bai, bi pieza bakarrik zekiten eta behin eta berri ziez bera errepiatu zuten. Orduan Lizargaten biltzen ziren inguruau guztiak eta orain aldean denek parte hartu eta primeran pasatzen zuten. Hau ere galtzera doa.



*Etxeberri izena izan arren, kontu zahorrik entzuteko aukera eduki genuen eta euskeria jatorra*

**jaiotakoak**

Lore Ibarguren Azkue, azaroaren 21ean

Maria Arruti Garate, abenduaren 8an

Alex Manterola Irureta, abenduaren 16an

**Aian**

Gontzal Aldai Salaberria, abenduaren 2an

**ezkondutakoak**

Ramon Karrera Uranga eta Maria Begoña S. Sebastian Peña, azaroaren 19an

Juan Antonio Uranga Uranga eta Bakartxo Ikutza Oliden, abenduaren 3an

**hildakoak**

Agustin Gozategi Aizpurua, urriaren 2an, 78 urte

Josu Olasagasti Saizar, urriaren 13an, 3 urte

**Aian**

Maria Lopetegi Etxabe, abenduaren 4an

**zorionak*****Gure irakurleei***

Lerro hauetatik Orioko, Alako eta gure aldizkaria jasotzen duzuenguztioi Gabonjaiak ondo pasatzea opa dizuegu.

Beraz, urteari bukaera on-onak eman eta hasiera hobea datorren urte berriari.

Zuen asmoak eta nahiak bete daitezela.

**ZORIONAK!!!**

**zoriotxarrak*****San Nikolasetan txikizioak egin zituztenei***

Herriko kontuetan oso giro oneko festak izan zirela aipatu badugu ere eta festa giroa nagusitu zen arren, dirudienez batzuek ondo pasatzeko telefonoak, zakar-ontziak eta ikastolako sarea txikitu behar dituzte. Hau izanda San Nikolasetako gauzarik penagarriena, eta okerrena da ez dela aurrenengo aldia. Azkena izango ahal da!

**URBAZTER**

Aseguru eta bidai agentzia

San Nikolas kalea, 8

13 33 14

**GABON**

Plater konbinatuak,  
pintxoak...

Telefona: 83 06 09

*Goxoki*

Gozategi-Kafetegia

AZKUE

Eusko Gudari, 33 Tfnoa: 83 39 20

**ANARRI  
KIROLAK**

Ibai ondo, 2 Tfnoa: 83 21 60

**MAPFRE, S.A.  
ASEGURUAK**

Eusko Gudari 50 B-1.E  
Telefona: 13 37 20

# Orain dela 25 urte...

# HIZKI ZOPA

DENETIK PIXKA BAT

1969. urteko abenduan festak pasa eta gero, herriak betiko martxan jarraitu zuen eta ez zen oso gauza aipagarririk gertatu. Hona hemen 1969ko abenduko "La Voz de España" egunkarietatik hartutako zenbait berri.

- ✓ Abenduaren 4an Familia Kristaua Mugimendua antolatuta hitzaldia izan zen. Gaia honako hau izan zen: "La familia como parte integrante de la sociedad, actuación del matrimonio ante si y ante la sociedad".
- ✓ Luiistarrek Aralarreko joateko irteera antolatu zuten. Prezioa laurogel pezeta izan zen.
- ✓ Francisco Arruabarrenak hamahiruko kiniela asmatu zuen eta garai hartako oso gutxi ez ziren hogeita hamabi bat mila pezeta kobratu zituen.
- ✓ Santo Tomaseko dema sarian Orioko Domingo San Sebastian eta Aiako Antonio Albeniz probalariek parte hartu zuten.
- ✓ Kintoen zozketan Alberto Aizpurua, Jose Ramon Lizarralde, Jose Luis Lopetegi eta Dionisio Masari soldaduzka penintsulan egitea tokatu zitzaien, Jose M. Esnali, berriz, marinan egitea tokatu zitzaien. Leundanean pelikula hauek ikusteko aukera izan zen: "Los diez gladiadores", "Holiday", "Fanfan la tulipe", "Joyerías de la familia", "Por favor no molesten", "Piel de espía", "La barrera", "Los héroes están muertos", "El último rey de los incas", "El extravagante Dr. Dolittle" eta "En Glentar se muere fácil".

J I A E T I L O G N  
U E L A P A N O D O  
A A T A O H N I A M  
F M B Y T F D A O B  
A L A A Z L D E A I  
L E I T I A D X U G  
L M T K B G X O T S  
A A S O U W O K A E  
B U G Z R B K R I X  
M L I K U E A A R T  
A E A N O I A B I I  
E K D A L A R O B S

Ale honetan Iparraldeko hamar herri aurkitu behar dira.  
Aurreko aleko herrien izenak  
hauek ziren: Agurain, Amurrio,  
Laudio, Kanpezu, Aramaio, Bias-  
teri, Oion, Legutio, Eltziego eta  
Bernedo.

## KomikiA



## ATLETIC-ERREALA

Gaur egun ez du gogo handirik ematen egunkarietako lehen orrialdeak irakurtzeko. Jende askok sari atera ohi duen ondorioa ondoko hau izaten da: "mundua erotzen ari da, eta azkenean denok erotuko gara".

Jendeak gero eta gogo gutxiago dauka politikaz hitz egiteko. Eta kontua da politikak, zerbait izatekotan, herritarren arteko harremanak eta bizi baldintzak hobetzeko artea beharko lukeela.

Jendeak, egunkariak zabalduta, nahiago du azken orrialdeetara jotzea, kirola, telebista... Eta kirolak eta kirolariek nire ustez behar ez luketen gehiegizko garrantzia hartzen dute gizartean. Ikusi besterik ez dago zenbat ale saltzen dituen kirol prentsak, zenbat aldiz diren jendearen berriketaren gaia. Eta kirol mugimendu olinpikoa sortarazi zuen espirituan oinarritutu balego, alegia: elkartasunean, eskuza-baltasunean, adiskidetasunean..., gaitzerdi. Baino kirolan ere bestelakoak dira kontuak. Kirolari batzuen arrakastaren neurria irabazten duten itxuragabeko dirutza da, horixe gertatzen da tenisean, golfean, etab. Eta diru gutxi mugitzen duten kiroletan, berriz, liskarrak eta ezinikusiak, noiznahi. Azken notizia Pasaiatik etorri zaigu, ertzain batek utzi egin behar izan zion arraun egiteari, beste batzuek ez zuelako ertzainik nahi bere klubean. Han sortutako giroak ETBn ikusi nuen saio bateko giroa gogorarazi zidian, Patxi Alonso presentadore impresentable horrek morboa eta arrakasta erreza lortu nahian, jarritako trunpan oriotarrek eta sanpedrotarrek amuari heldu eta eman ziguten ikuskizun negargari hura.

Hori arraunean, eta futbolean zer? Ba, futbolean antzeko; Orion betidanik izan ditugu errealzaleak eta atletic-zaleak, baina, orain arte, nik uste dut horretan gelditzen zirela, zale izate hutsean, munduko adar jotze guziekin, baina besterik gabe. Azken aldian, ordea, jende askorengan aldaketa bat gertatu da, zale izatetik beste taldeari sekulako amorrua izatera pasa dira. Orain hemengo askok nahiago du R. Madridek berak irabaztea Atletic-ek baino edo Errealak baino. Jende askok ospatu egingo luke Atletic bigarrenera jeistea, eta beste batzuek hori Errealari gertatzea. Badira Gerrero edo Goikoetxearen golekin pozten direnak gol horiek Espanako selekzioarekin lortzen direnean, bakarrik.

Giro horretan, nire ustez, garrantzi handia hartzen du Euskadiko selekzioak abenduaren 23an errusiarren kontra jokatu duen partiduak, Gerrero eta Imanol elkarren ondoan jokatzen ikustea gehiago balio dezake batzuentzat politiko askoren hitzak baino, eta ondoren Euskal Herri batua eta euskalduna amesten dugumontzat ere bai.

Imanolek egunkari hatean esan duenez euskal selekzioak ez du etorkizunik. Ni optimistagoa naiz. Gauzak epe luzera ikusi behar dira, baina helburuak inoiz errealitate egin daitezen oinarriak jartzen hasi behar dugu, aitaren etxetan erakitzeko.

Datorren astean jokatuko duten Atletic-Errealak partiduari begira: Aupa Atletic, aupa Erreal!

● INAKTURAIN ●

## Kriston ondo: Oso gaizki

Ez dakigu nondik sortu den, ez dakigu zergatik. Baino gaztetxo askok "kriston ondo" esaten du. Eta "kriston berandu" eta "kriston polita" edo "kriston handia". Eta horiek denak gaizki daude, ez "kriston gaizki", baina, bai, oso gaizki, zeharo gaizki, erabat gaizki; kriston astakeriak dira. Eta esateko modu hau oso berria da. Esan daiteke gutxi gora behera hogeita hamar urtetik beherako gaztetxoen kontua dela. Orain arte Orion "kriston" hori izenekin bakarrik erabili da; kriston mutila, kriston estropada, kriston atsoa, edo kriston etorria..., eta ez adjetibo edo adberbioekin. Beraz:

**Kriston ondo → GAIZKI**

**Kriston berandu → GAIZKI**

**Kriston polita → GAIZKI**

**Kriston handia → GAIZKI**

**Kriston kontzertua → ONDO**

**Kriston etxea → ONDO**

**Kriston arraunlaria → ONDO**

**Kriston emakumea → ONDO**

Siriisten ez baduzue egin aproba, joan Orioko baserriren batera, hasi hizketan hango baserriaren batekin eta egon erne, entzun arretaz, ikusiko duzue nolako hizkera jatorra eta, kasu batzuetan, aberatsa darabilten, gozatzeko modukoa, eta nola ez duten akats hori egiten.

Hitz egin dezagun ondo, berdin kosta zaigu eta.

# Arrantzaleen oroigarri

*Kontatuko dizuedan gertakizun honen lehen arrastoak nere amak eman ondoren, haritik tiraka hasi nintzen, eta lehendabizi kofradiara jo nuen aktetan zer berri ote zegoen ikustera. Han, nere harridurarako, ez nuen ezer aurkitu. Datu administratiboak bakarrik gordetzen dira eta ez da inondik inora marinelen konturik aipatzen. Kofradiako arduradunak, Iñaki Sarasuak Patxi Oliden "Danbolin" engana, bidali ninduen hark zerbait jakingo zuela eta. Hari eta amaieran aipatzen ditudanei esker, azkenean zehaztasun guztiak biltzea lortu dut. Besterik gabe hor doakizue gertakizuna.*

## TXOMIN ETXEBERRIA

Orio herria, 1922. urteko otsailak 12, asteazkena. Goizeko hirurak dira, gaua oskarbi dago eta jela ari du. Ibai gairsean laino dago. Izarratuta egonagatik zerura inor gutxik begiratzen du. Lanerako ordua da eta gehienak itsasora ateratzeko eginkizunetan ari dira. Bittacan, "San Luis" baporeko "Marmetanekua" izen-goitz ezaguna den Jose Miguel Mirxelena, gutxi barru ezkonduko dena, Bixente Loidi "Zekorraneukua", Angel Etxeberria "Andutxonekua" eta Domingo Etxeberria "Gorrianekua", beren etxeetatik ateratzean daude. Denak auzo berekoak dira, elizatik gertu dagoen Pilliku plaza ingurukoak. Itsasorantz abiatu behar dute masia egitera, maria beheraka hasten dela aprobetxatuz. "San Luis" baporea Donostiarra joan zen atzo arraia saltzera eta albaldean etorriko da barraldera. Ordurako, sardinak uraxalean bilduta masaren inguruari nahi dituzte, errazago harrapatzeko.

Pillikutik abiatu eta Kale Nagusitik barrena, lehenda bi masa bila joan dira. Gero, Pikaerara heldu direnean, batelean masa kargatu kontu haundiz eta denak igo ondo-

ren abiatu egin dira. Arraunkada batzuk eman ondoren Xubai parean ikusi dute, Urkorridentearen laguntzaz, Palota lehendabizi, San Antonio gero eta azkenik plaiaren txikiaren aldamenetik pasatuz, segituan Oibazar parean jarri dira. Aurrerago joanda, Karmengo Amabirjinaren argitxoa ikusi dute. Dagoeneko goizeko laurak gainean dira.

Itsasoak eta ibaiak topo egiten duten lekura heldu surretik erme doaz. Laurek dakte leku arriskutsua dela. Baina erdi ilunpean daude alde batetik, eta hainbeste alditan lan berdina egina iza-teak konfidantza pixka bat eman die, bestetik. Gauzada,

uren topalekura heldu direnean, ur zurrubilo batek batela tribestu egin diela. Itsasoa, uste zuten baino mugituago dago eta ontzia zuzentzeko ahaleginetan ari direla, olatu kolpe batetik batela jo eta irauli egin du. Lau gizonak, konturatzeko denborarik izan gabe, ilunpean, uretara doaz: "Marmetanekua" eta "Zekorraneukua", akaso kolpea hartuta edo akaso igeri egiten ez dakite-lako, urak beretzat hartu ditu. "Gorrianekua", igeri eginez Amesti aldeko arroketara irtetzea lortu du. Lagunei deika hasi da eta Angelek bakarrik erantzon dio: "Hemen gelditu nauk, ezin diat gehiago!". "Andutxonekua" gertu sen-

titu du, hurbildu zaionean horikusten du poste bat helduta urez inguraturik. "Itxo ezak pixka batean eta eutsi fuerte maria beheraka ziboa eta laister aterako haiz", erantzun dio Domingok. Urak nahiko jeitsi arte Domingok animoak eman dizkio positiari fuerte euts diezaion. Eguna argitu aurretik Angel ere atera egin da. Biak hotzak akabatzen daude eta Oibarzarbaserrira abiatu dira erropa lehorren eske. Beste bien gorpuak egun argitan aurkitu dituzte. Gaurko egunaren hasterak Orio goibeldu egin du. Seguruasko ez da azkena izango bere historian.

*Historia hau izan dadila arrantzale munduan lanean dikkardutene guztiak orioigarrri.*

*Eskerrik heroenak: Patxi Oliden "Danbolin", Ramon Solaberrieta "Erramolino". Antoni Urkiza, (Angel Etxeberriaren alarguna), Esnal jatetzeko Modestari eta horondade oniez lagundu didazien guztiei.*

*Txomin Etxeberria ("Gorrianeko" Domingoren hiloba).*





## **EZETZ EZAGUTU! lehiaketa**

Argazki hau 1929-30ean atera zieten eskolan zebiltzan herriko mutilei.

Bertan azaltzen den kuadrila handi horren **maixuaren izena** eman behar diguzue oraingo honetan.

*Bigarren galdera: Zenbat urte egin zituen Santanderren Don Joakin Arostegi apaizak ?*

*Orain arte egin dugun bezala, afari bat zozketatuko dugu asmatzaileen artean.*

*Afaria Katxiña Jatetxeen izango da.*

*Erantzunak urtarrilaren 19rako bidali behar dizkiguzue, helbide honetara:*

**KARKARA aldizkaria** Ezetz ezagutu! lehiaketa Herriko plaza, I (Udaletxe atzeko karkara)

*Aurreko aleko irabazlea Amaia Gozategi izan da. Hau zen eman beharreko erantzuna: Amaia Gozategi, Miren Maite Oliden, Mirentxu Albeniz, Natalia Herrero eta Itziar Sarasua.*

*Bigarren galderaren erantzuna: "Otto Pette" liburuaren 4.500 ale saldu ziren iraila bitartean.*



**KATXINÀ  
ERRETEGIA**

☎ 83 14 07



# DIRULAGUNTZAK

## IKERKETA-LANAK EGITEKO

'Euskaraz Gazte 94' ekintza-programaren barruan, ikerketa-lanak egiteko dirulaguntzak eskainiko dizkie Orioko Udalak herriko gazteei.

Dirulaguntza horien bitarte bi helburu bete nahi ditu Udalak: batetik, gazteak animatzea euskararentzat beste erabilpen-esparru bat (ikerkuntzarena, alegia) irabaz dezaten eta, bestetik, Oriori buruzko ikerketa-lanak bultzatzea.

Orioko gazte-jendea gero eta jantziago dago, gero eta gaitasun handiagoa du horrelako lanei ekiteko eta Udalak, dirulaguntza hauen bidez, bultzadatzoa eman nahi die gure gazteei dutenetik eman dezaten herritar guztion probetxurako.

### Oinarriak

- 1.- Dirulaguntza lortu ahal izateko baldintza izango da Orion jaioa izatea edo bertan bizi, ikasi edo lan egitea.
- 2.- Lan guztiak argitaragabeak eta euskaraz idatziak izango dira. Lana euskaraz sortu beharko da; ez da erdarazko lanen itzulpenik onartuko.
- 3.- Edozein gai jorratu ahal izango da, beti ere Oriori buruzkoa edo Oriorekin zerikusi zuzena duena baldin bada. Gainerantzean, ikerketa-lanaren gaia guzitiz librea izango da: hizkuntza, historia, ekonomia, ekologia, geografia, kirola, bertsolaritza...
- 4.- Lanak bakarka edo taldeka egin ahal izango dira.
- 5.- Bi laguntza-mota izango dira:
  - a) 15-20 urte bitartekoentzat, 70.000 PTako dirulaguntza bat
  - b) 21-29 urte bitartekoentzat, 130.000 PTako dirulaguntza bat
- 6.- Dirulaguntza horietako bat eskuratu nahi dutenek txosten labur bat (bizpahiru orrialde) aurkeztu behar dute Udaleko Euskara Zerbitzuan egin nahi duten lanaren nondik norakoak azalduz. Txosten **1995eko urtarrilaren 13a** baino lehen aurkeztu behar da.
- 7.- Udaleko Euskara Batzordeak erabakiko du dirulaguntzak nori eman eta 1995eko urtarrilaren bukaeran jakinaraziko du hartutako erabakia.
- 8.- Ikerketa-lanak urtebeteko epean burutu beharko dira.
- 9.- Dirulaguntza bi zatitan ordainduko du Udalak: erdia lana hasterakoan eta beste erdia hori amaitu eta aurkezterakoan.
- 10.- Lanen luzera:
  - a) taldekoek, 25 orrialde gutxienez.
  - b) taldekoek, 50 orrialde gutxienez.
- 11.- Udalak beretzat hartuko du lan horiek argitaratzeko eskubidea.

